**ATBren ZUZENEKO PROGRAMAK SEBERO ALTUBEN**

# Arrasate Press

1996ko Ekainak 21
325. zenb.



**IKUSPEGIA**
Jesus Larrañaga

**IRITZIA**
Maite Uranga

**KULTURA**
Iban Garcia

**KIROLAK**
Goitibehera jetsiera

## San Juanak 96

**Joxemari Lasagabaster, San Juan jaietako argazkilaria**

# San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue Arrasateko Udalbatzak arrasatear guztioi

## Zure Zerbitzura:

- *AUKEA*
- *KIUB*
- *Udal Ingurugiro Eskola*
- *Drogomenpekotasun Zerbitzua*
- *Monterron Kultur Etxea*
- *Euskara Zerbitzua*
- *Udal Euskaltegia*
- *Gazteen Informazio Bulegoa*
- *Iturbide Egoitza*

ARRASATEKO UDALA

# Arazo orokorrei lekuan lekuko irtenbideak

Chapecó hirian, Brasilgo hegoaldean kontsumo gune handiegatik urrun, nazioarteko jardunaldi batzuetan Enpresa Partehartzaile Komunitarioari buruz eztabaidatu zen. Chapecónen, Brasil handiaren beste hiri txiki askotan bezala, gazteek irtenbide bakarra dute, migrazioa Sao Paulo eta Rio de Janeiro macrohirietara.

Seme/alabendako lanik ez dagoenez marginaziora kondenatuta sentitzen dira, eta haiek euren herrien txikitasunean irauten dute, kapitalista eta sortzaileen faltan, edo hiri handiaren anonimatoan eta indiferentzian galtzera zigortuta daude, txirotasunak eta drogak inongo erruki barik irensten dituen tokitan. Gizarte modernoak jartzen dien etorkizunerako bide bakar horri aurre egiten diete gurasoek. Badakigu gure seme/alabek ihes egiten digutela, dio antolatzaileetariko batek, baina ez dakigu itzuliko diren edo ez. Txirotasunerako eta minerako sortzen ditugu haurrak. Hori da ahalik eta denbora laburrenean irabazi handiena ematen duen gizarte baten fatalismoa. Eta kontsumo handiko guneetatik urruti dabiltzanak, distantziaren lege sinpleagatik -garraio kosteak-, ez dira lehiakorrak. Kapitalak ez ditu inguru horiek ongarrituko, eta baztertzea eta ostrazismoa dira gure patua.

Jardunaldien bultzatzaileak, denbora gutxira gizakiaren bizitza bera hartuko duen fenomenoarekiko pertsona sensibleak, elkarlaneko estrategiak garatzeko beharra aipatzen dute, komunitate txikien borondate sozial eta politikoaren garapena. Horretarako giza-taldeengana jotzen dute "holding"ak sortzeko, herri eta hirietako jendearen diruarekin sortutako kapital elkarteak. Herri kapitala, interes txikiko kreditoen bidez gazte sortzaileei laguntza emateko antolatzen dena, beti ere "holding"aren partehartze nagusiarekin. Era horretan bermatzen da antolakuntzaren zuzendaritza eta laguntza, aldi berean izaera profesionaleko laguntzak emanez.

Udalek eta indar-sozialek bat egiten dute Enpresa Partehartzaile Komunitarioen erronkaren inguruan, gizartearen arazo nagusian komunitatea dinamizatu nahi duen eredu bezala: enplegua komunitatean bertan, bizitzak bere zentzua hartzen duen tokian. Diotenez Santa Catarina estatuan (6 milioi biztanle) 400 enpresa baino gehiago dauzkate, eta 600 inguru Brasil osoan. EPKn eredua 1987ko lege batek arautzen du.

Baina arazoa ez da herrialde honena edo harena, mundu osokoa baizik. Urruneko herri eta lurraldeak eta baita gainbehera dauden herrialdeak, Euskadi bezala -beste arrazoi batzugatik- kapitalak ihes egiten duen gune dira. Eta lehen, behintzat Arrasaten, erantzun komunitarioa kooperatibak izan ziren. Arrasateko ispiluan, baita Brasilen ere, begiratzen dute, baina eredua ez da hedatzen.

Behar bada ez zaigu dinamika komunitarioaren inguruan borroka handiari berregitea beste irtenbiderik geratuko, utzikeriaren tranpan erori aurretik, eta ohiko kapitalistaren hutsunea bete, gehien berotzen duen eguzkira joaten dena bere izaerari kasu eginez: bersortzea ahalik eta denbora laburrenean.

**Jesus Larrañaga**

*Hilbera kafetegia*
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

IBARRA Garajea S.L.
EBRO
NISSAN
*Garajea*
*Automobil-konponketa*
*Garabi zerbitzua*

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

*Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du*

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du*

*Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du*

• **ARRASATE** PRESS •
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Beñardo Kortabarria. **Kazetariak**: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea**: Aberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa**: Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa**: Goio Arana. **Kolaboratzaileak**: Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran,Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna**: Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © **ARRASATE** PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazki originala**: Joxemari Lasagabaster "Wentxes"

• • • • •

## San Juan jaiak

Behin eta berriro Arrasateko
jai nagusiak ditugu,
zaindariaren egunak bere
eragina berekin du;
bertso batzuek moldatutzeko
jaso den zenbait erregu:
zerbait litzake San Juan pozik
utziko baldin bagenu.

Lehenago ere esana naiz eta
berriz diot eragingo,
herria utzi jaietan eta
ez du gutxik aldegingo;
ez bakarrikan Avilakoak
etxekoak maiz lehenengo:
peregrino bai baina San Juan
turista ez zen izango.

Nigana norbait maiz hurbiltzen da
nola naizen jakin nahiean,
eta bide batez hein batean
bertso batzuen irrikan;
Larogei urte bete berri naiz,
sartu naiz soka berrixan;
lehenago zaharra nengoen eta
zarragoen koplaixan.

Nere berririk nabariena
berehala den emango,
mahaia garbitzen ona nintzen eta
orain ere ona nago;
gainerakoan ezinak beti
gero eta menperago;
zaharragotzea zaila da eta
gaztetzerikan ez dago.

**Jose Manuel Arriola**

• • • • •

## Apunta nazazue

Aurten, San Juan egunean, Dragoi-jana dastatzeko aukera izango dugu arrasatearrok. Nahiko merke gainera entzun dudanez.

Txerri-jana eta sugejana ez dut inoiz probatu, baina jakingo duzuenez dragoi-jana printsezak izaten dira batez ere; eta janari eder hori probatu barik ez dut mundu honetatik desagertu nahi.

Txantxak aparte, ez da berdin txerri-jana jan ala txerria bera jan. Zugarramurdiko jaietan "zikiro-iate" izaten dute, baina ez dute inoiz jaietan zikiro-janaz tripa bete, bestela ez litzateke izango bedarrik Zugarramurdiko zelaietan.

Azkenean askotan gertatzen den bezala, erdararen eraginez, dragoi-jana eta dragoi jatea nahastu zaizkigu. Gaztelaniaz "la comida del dragón", dragoiak jaten duena eta dragoia jaten dugunean adierazteko erabiltzen da.

Euskaraz badugu bi ideia desberdin horiek adierazteko bi modu desberdin ere; aberatsagoa kasu honetan.

Gogoratzen naiz Francoren garaian behin, erreferendum bat muntatu zuela. Euskal Herrian, erreferendum horren kontra pintada ugari jarri ziren hormetan, bozketa hartan abstentzioa eskatuz.

Mendi edaritegiaren kanpoko horman, baten batek "Aratuztea" jarri zuen, aragi huztea edo abstinentzia eskatuz eta ez erreferendumaren kontra abstentzioa.

Hau be barregarria, baietz?

**Antton del Campo**






# MODAREN HIZKUNTZA

TROKO

***TROKOk jai zoriontsuak opa dizkizue!***

*Erdiko kale, 14 • ARRASATE*

# Arrasatearrok!!

*Menderik mende dator garaien gurpila eguneroko xehetasunez osatzen da borobila.*

*Hamaika amets, milaka kontu. Ehun urte parez pare.*

*Neurtezinari neurri hartuz hementxe jardun halere; makalak duen malgutasunaz, burdinak daukan sendotasunaz, nabariko da nor garen.*

*Bitartean, egunak igaro ahala, agurrik beroena arrasatear guztioi eta bereziki preso eta errefuxiaturik zaudetenoi.*

*Atsegin dakizuela egitaraua.*

*Atseginago jaia.*

*Ondo passau!*

*Alkatea*





*Izozkitegia*

*Gozotegia*
*Italiar izozkitegia*
*Kafetegia*

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 81 68 ARRASATE

FLORES MONICA

**Koroak • Ezkontzarako lore sortak**
**Landareak • Lore guneak**
**Mondragones kalea, 9 Tfnoak: 79 12 30 / 79 04 84**
**ARRASATE**

**asesoria ARRASATE**

**Orain, Erdiko kalean gaude!**

*Erdiko kalea, 32 - 1. I*
*Tfnoa: 79 01 47*
*ARRASATE*

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**Udako ikastaroak eta errekuperazio ikastaroak**

**ALEMANA • INGELESA • FRANTSESA**

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32/79 65 54

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

## EKAINAK 22 LARUNBATA

❑ Egunean zehar ekintza ezberdinak: bizikleta martxa, rock jaialdiak etab.

❑ 17.00etan, San Juan Futbito txapelketa, Iturripen.

❑ 17.00etan, Saskibaloia 3x3, Iturripen.

## EKAINAK 23 IGANDEA

❑ Egunean zehar Seber Altube plazan Euskal Herria Dastatuz euskal produktu gastronomikoen feria.

❑ 11.00etan, San Juan Futbito txapelketa eta Saskibaloi 3x3 txapelketa, Iturripen.

❑ 11.30etan, Goitibehera Txapelketa, Udala auzotik behera.

❑ 12.00etan, Oria txarangaren kalejira.

❑ 15.00etan, Bazkaria, jai-gunean.

❑ 15.30etan, Etxafleroak, Herriko Plazan.

❑ 16.00etan, Bonba Japoniarrak, Herriko Plazan.

❑ 16.30etan, Haur Animazioa Auskalo taldearekin, Herriko plazan.

❑ 17.00etan, Makalaren bila joateko elkartzea, jaigunean.

❑ 17.30etan, Makala plazara eramateko bildu, Maalako Errebalean.

❑ 18.00etan, ASAren argazki erakusketaren inauguraketa, Monterronen.

❑ 18.30etan, Makala jasotzea, Herriko Plazan.

❑ 19.30etan, Salvea, San Juan Parrokian.

❑ 21.00etan, Errementari dantza, Nafarroa Etorbidetik plazaraino.

❑ 22.30etan, San Juan sua, Herriko Plazan.

❑ 23.00etan, Nagusien tanborrada, Nafarroa Etorbidetik plazaraino.

❑ 01.00etan, Dantzaldia Gaubelarekin, Herriko Plazan.

❑ 01.30etan, Karaokea, jai-gunean.

## EKAINAK 24 ASTELEHENA

❑ 08.30etan, Diana Arrasateko Gaiteroekin.

❑ 08.45etan, Eskaintza Maritxu Kajoiri.

❑ 09.00etan, Entzierroa Ferreriasetik Laubideraino.

❑ 11.00etan, Meza Nagusia, San Juan Parrokian.

❑ 11.00etan, Kiliki eta Erraldoien kalejira.

❑ 12.00etan, San Juan aurreskua eta zortzikua, Herriko Plazan.

❑ 12.00etan, Kalejira, Arrasate Musikaleko Bandarekin.

❑ 12.30etan, Elkartean programaren azkena, Seber Altube plazan.

❑ 13.00etan, Musika Bandaren kontzertua, Monterronen.

❑ 18.30etan, Kale antzerkia Transito taldearekin, jai-gunean.

❑ 19.00etan, Kalejira Iraunkorrak txarangarekin.

❑ 19.15etan, Bertso-saioa Lizaso eta Irazurekin, Seber Altuben.

❑ 20.30tik-22.00etara dragoi jana Herriko Plazan.

❑ 22.30etan, rock jaialdia Altar eta Arsenal taldeekin, jai-gunean.

❑ 23.30etan, dantzaldia Egan taldearekin, Herriko Plazan.

❑ 24.00etan, su artifizialak, Santa Barbaratik.

❑ 02.00etan, jolasak, jaigunean.

## EKAINAK 25, ASTEARTEA

• 08.30etan, Diana Arrasateko gaiteroekin.

❑ 08.45etan, Eskaintza Maritxu Kajoiri.

❑ 09.00etan, Entzierroa, betiko ibilbidean.

• 09.30etan, Txirrindulari Lasterketa, Garibai etorbidean.

❑ 11.00etan, Eguzki Laruri ongietorria, Herriko Plazan.

❑ 11.30etan, Saltsa-maltsan, Herriko Plazan.

❑ 13.00etan, Santa Barbarara igoera.

❑ 14.00etan, Bazkari Barbaroa, Sta. Barbaran.

❑ 16.00etan, Piratak, Herriko Plazan.

❑ 18.00etan, Sorpresa Eguzki Laruren eskutik.

❑ 18.30etan, Mus, Partxis eta Futbolin txapelketak, jai-gunean.

❑ 18.30etan, Ze bero ATBn lehiaketa, Seber Altube plazan.

❑ 19.00etan, Erraldoi eta Kilikien kalejira.

❑ 19.00etan, Jaialdia zezen plazan.

❑ 19.00etan, Kalejira Txalaparta txarangarekin.

❑ 19.00etan, Mondragon Brass taldearen emanaldia kalean zehar.

❑ 19.15etan, Leintz Bailarako bertsolari gazteak, Seber Altube plazan.

❑ 20.00etan, Nick Twilley perkutsio taldearen emanaldia, jai-gunean.

❑ 20.30etan, Zuberoako Dantzak, Herriko Plazan.

❑ 23.00etan, Dantzaldia Gozategirekin, Herriko Plazan.

❑ 24.00etan, Zezen suzkoa, Herriko Plazan.

## EKAINAK 26, ASTEAZKENA

❑ 08.30etan, Diana Arrasateko Gaiteroekin.

❑ 08.45etan, Eskaintza Maritxu Kajoiri.

❑ 09.00etan, Entzierroa betiko ibilbidetik.

❑ 11.30etan, Kalejira Trikitilariekin eta Incansables txarangarekin.

❑ 14.30etatik - 18.00ak arte, Herri Bazkaria, Zaldibarren.

❑ 18.30etan, Pilota Partiduak, Zaldibarko frontoian.

❑ 19.00etan, kalejira Incansables txarangarekin.

❑ 19.00etan, dantzaldia trikitilariekin, Seber Altube plazan.

❑ 19.30etan, roc jaialdia Txusma eta Child Abuse taldeekin, jai-gunean.

❑ 22.00etan, dantzaldia Drindots taldearekin, Herriko Plazan.

❑ 24.00etan, jaien amaiera.



# Jaietan gehiago ligatzen da?



**Sonia Rincon**
**(26 urte)**
**Langilea**

Bai, gehiago ligatzen da. Jendea zabalagoa da eta giro berezia sortzen da horretarako. Gehiago edaten dugu eta alaiago egoten gara



**Iker Segurajauregi**
**(17 urte)**
**Ikaslea**

Jaietan beti dago predisposizio bat ligatzeko, jendea desfasatuago egoten da eta.



**Nerea Poyato**
**(10 urte)**
**Ikaslea**

Ez dakit, nik ez dut gehiago ligatzen beharbada beste batzuk ligatuko dute.



**Alex Mitxelena**
**(21 urte)**
**Ikaslea**

Baietz uste dut, giro hobea egoten da eta jendea ligatzeko gertu egoten da.



**Beatriz Ijurra**
**(24 urte)**
**Langilea**

Jaietan ligatzeko aukera gehiago duzu, giroa dago, jendeak edan egiten du. Jendea lotsati samarra da eta ez da gehiegi ligatzen.



**Miguel Royo**
**(19 urte)**
**Ikaslea**

Festa giroan gaude, gehiago edaten dugu eta horrek lotsak kendu eta ausartago bihurtzen gaitu. Ligatzeko aproposak izaten dira jaiak.



**Itziar Zufiria**
**(18 urte)**
**Ikaslea**

Baietz esaten dute baina jendea oso pasatuta egoten da eta ez da horrenbeste ligatzen. Tontekeri gehiago egin bai, baina ligatu ez.



**Inaxio Lasa**
**(30 urte)**
**Langilea**

Baietz uste dut, gainera jendea jaiak direla eta horretara doa. Hala ere uste dut Arrasaten ez dela asko ligatzen.



**Yolanda Mendi**
**(30 urte)**
**Langilea**

Beharbada bai, jendea mozkortuta egoten da eta ausartago ere bai. Arrasaten dena dela, ez dela asko ligatzen uste dut.



**Anartz Bilbao**
**(21 urte)**
**Ikaslea**

Bai. Jaietan beste giro bat egoten da. Nik ere jaietan gehiago ligatzen dut. Nolanahi ere gehiago ligatzea gustatuko litzaidake.



**Eva Navarro**
**(18 urte)**
**Ikaslea**

Jendea edanda joaten da eta aukera gehiago dago. Dena den hemen ez da asko ligatzen. Guapo gutxi dago eta daudenak okupatuta.



**Jon Calvo**
**(17 urte)**
**Ikaslea**

Bai. Kanpoko jendea etortzen da, eta horrela beste pertsona batzuk ezagutzeko aukera egoten da. Hala ere nik ez dut ligatzen.



*** Maite Uranga**

# Goazen San Juan jaira!

Aurreko martxoan, Juan Luis Arexolaleibak jaietako zinegotziak kultur erakunde zein herritar guztiei dei bat luzatu zigun San Juan jaien inguruan zuen zenbait ardura, kezka eta asmoen berri emateko, hau eztabaidatzeko hilaren bukaeran lehenengo bilera egin genuelarik. Bi izan ziren azaldutako erreflexioak, bata orokorra eta bestea zehatza San Juanei begira. Jaiei buruzko erreflexio orokorrean, hauek bete beharreko funtzio nagusietan zentratu ginen:

1. Juergarako eta ondo pasatzeko egunak izatea.
2. Herri bizi baten islada izatea.

Helburuak markaturik, antolaketa lanetan aztertu beharrekoak jorratu genituen; besteak beste, dagoenari eustea aldatu beharrekoa aldatuz, kultur erakundeen partaidetza areagotu, eta azkenez jai giroa, partehartzailea sustatzea, elkarte eta gazteak orohar asmo hauen motorra izan beharko liratekeelarik.

Hitz gutxitan eta labur esateko, jaiak aberastea izan zen markatutako helburu nagusia.

Beste batzuen artean, 24 eta 25 egunak indartzearen beharra somatu zen, jaiak espektakulo hutsean ez oinarritzearen beharra.

Hau dela eta jai esparru bat sortzea planteatu zen, honetarako txozna ezberdinak egoteaz aparte ekintza ezberdinak burutuko diren jai gune bat antolatu dugu, aparteko ekitaldiz osatutako programa baten barruan. Ekintza guztien berri jaien egitarauan dago, halere zenbait nobedade aipatuko ditut, karaokea 23an, Dragoi Jana, non dragoi txuleta zoragarri bat dastatzeko aukera izango dugun 24ean, helduentzako jolasak, antzerkiak, kontzertuak, eta abar luze bat. Dragoi jana ezik, beste guztiak Kondekuan antolatu dugun jai esparruan burutuko dira.

> *"Jaiak aberastea izan zen markatutako helburu nagusia"*

Besterik gabe eta bukatzeko, Arrasateko herriari jaietan parte hartzeko deia luzatu nahi nioke batzordea osatu dugun guztion izenean.

Ondo pasa!

*** JAIETAKO ANTOLAKETA**

## USTEAK USTE

**AMA JAIXAK DIE...**

**Belaunaldi berriak lehen aldiz gauez kalera irtetzeko aukera ezin hobea izaten dira herriko festak. Are gehiago zaindariaren jaiak badira. Aurten ere duda barik horrela gertatuko da. Normalean ez da erraza izaten honetaz jabetzea; noizean behin konturatzen gara bai kakaume berri asko dabilela kalean, baina besterik gabe. Badago gau bat ordea gaztetxo hauek nabarmen agertzen direnekoa. San Juanetako hirugarrena hain zuzen ere, orduan ematen da fenomeno hori. Itsasbeherak harkaitzak bistan uzten dituen moduan hala gertatzen da gau horretan ere. Biharamunean lanera joan behar dela eta, zaharragoek (lana dutenek) aguro hartzen dute etxerako bidea. Orduan agerian geratzen da zenbat gaztetxo dagoen kalean. Beraien lokalizazioa txozna inguruan kokatzen da. Agian bertako zerbitzariek errespetu gutxiago jartzen dutelako eta atera behar dutena (...) ateratzen dutelako. Gainera, Monterron ere gertu dago... Baina honera helduz gero bakoitzak gogora dezala bere garai hura. Ondo passau aurten inoiz baino indartsuago datozen jaixak!**

**ANDER ETXEBARRIA**

Goiztiri Opariak
Ondo pasatu jaiak!
Maalako Errabala, 11
Tfnoa: 79 87 43 ARRASATE

AMUEBLADORA ZARAUZ
ERA GUZTIETAKO ALTZARIEN SALMENTA ETA DEKORAZIOA
*Ondo ibili San Juanetan!*
Olarte, 35-etxabea. Tfnoa: 79 28 44 ARRASATE

Uribarri Etorbidea, 1
Tfnoa: 77 13 64
ARRASATE




LORAMENDI

Jai giroarekin bat egiten!



JAI ZORIONTSUAK!

NEREA

Bainujantzietan espezialistak

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tfnoa: 79 13 43




ARRASATEKO ERDU-AEK EUSKALTEGIA

**EUSKARA IKASTAROAK**
**Maila guztiak**
**EGA eta ALFABETATZE**

**Matrikula epea: Ekainak 28**
**Gurasoentzat klase bereziak**

Informazioa eta matrikulak:
ERDU-AEK EUSKALTEGIA

Garibai Kalea 14, 3. Tfnoa: 77 03 69
UDALAREN LAGUNTZAZ
BEKA SISTEMA

aek

### Ikerlanen batzar orokorra

Urteko Batzar Orokorra egin zuen joan den ostegunean Ikerlanek. Teknologia ikertegiarendako 95a urte ona izan zen, urte hasieran jarritako helburuak erraz bete zituzten eta. Iaz 1.300 milioi pezetako sarrerak izan zituen, eta enpresetatik zuzenean etorritako diru sarrerak orain dela bi urte baino %13,7 gehiago izan ziren.

### Hitzaldia Batzokian

Joxe Juan Gonzalez de Txabarri, EAJren kidea, Arrasateko batzokira hurbildu zen joan den ostiralean hitzaldia ematera. Madrilen parlamentaria denak PPrekin sinatu duten elkarlana, eta GAL auzia izan zituen hizpide. Gonzalez de Txabarrik esan zuenez, 2001. urtean ekonomia ituna sinatuko dute PPrekin, eta hori oso garrantzitsua izango da maila fiskalean Euskal Herriak subiranotasun osoa izan dezan. Horrez gain, datorren urtean kupoa berrituko dela gogoratu zuen. GALi buruz, ikerketa judiziala ez dela nahikoa esan zuen.

### Argazki rallya

Joan den domekan ASAk antolatutako argazki rallya jokatu zen Arrasaten. 23 lagunek egin zuen lehiaketan parte hartzeko izenematea, eta guztiak eurek aukeratutako bi gairi eta antolatzaileek finkatutako beste lauri buruzko argazkiak ateratzen ibili ziren. Antolatzaileen gaiak honako hauek izan ziren: jende heldua, edariak, poliki eta saldu. Lehiakideen esanetan, poliki gaia izan zen zailena. Karreteak errebelatutakoan partehartzaile bakoitzak sei argazki aukeratuko ditu lehiaketara aurkezteko. Saridunen izenak ekainaren 28an jakinaraziko dira.



## Arrasateko lekuizenak liburuan

Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko kide batzuk Arrasaten izan ziren joan den ostiralean, "Arrasateko Toponimia" liburuaren aurkezpen ekitaldian parte hartzeko. Onomastika Batzordeko kideek, Arrasateko alkateak eta Kutxaren ordezkariak Jose Luis Ormaetxea arrasatearrak egindako lana goraipatu zuten. Ormaetxeak ikerketa egiteko zein bide jarraitu duen eta non arakatu duen azaldu zuen. Ikerlariak esan zuenez, harrituta dago herrian aurkitu duen lekuizen mordoarekin baina garbi utzi zuen guztiak ez dituela bildu. 2.000 lekuizen baino gehiago bildu ditu Gesalibarren jaiotako ikerlariak. "Arrasateko Toponimia" izeneko liburua salgai dago liburudendatan.




## "Enplegua eskubideekin"

"Enplegua Eskubideekin" lemapean enpleguaren aldeko martxa egin dute astean Deba Garaiko eta Beheko Langile Komisioak sindikatuko 55 kidek. Martxa Elgoibarren hasi zen astelehenean eta zapatuan bukatuko da Altsasun. Azken urteetan kontratu finkoak egin beharrean aldi baterako kontratuak ugaritzen ari direla salatu nahi izan dute martxaren bidez. Bestalde, langabetuekiko elkartasuna eta ordu extrak sartzen dituzten langileekiko desadostasuna adierazi nahi izan zuten. Asteartean ECCOren, aldi baterako lan enpresaren, aurrean ETTen kontrako pintada egin zuten. Horrez gain, Gelma lantegian aparteko orduen aurkako bi pintada egin zituzten.

### Margo taldearen erakusketa

Arrasate Margo Taldeko 20 partaideren lanak biltzen dituen erakusketa zabaldu zen joan den ostiralean. Aurkezpenean izan ziren taldeko partaideak eta alkatea. Partaideen esanetan, aurten asko aurreratu dutenez, erakusgai jarri dituzten koadroak iazkoak baino hobeak dira.

### Kirolei buruzko fitxak euskaraz

Saskibaloiari, eskubaloiari eta rugbyari buruz euskaraz egin diren fitxa didaktikoak jasotzen dituen karpeta aurkeztu zen asteazkenean Aretxabaletan. Deba Bailarako Udalek kaleratzen duten Kirola-Euskaraz bekari esker egin dituzte Alfredo Cobok eta Aitor Lasak fitxa didaktikoak. Beroketak nola egin behar diren ere jasotzen da fitxetan. Fitxa didaktikoak biltzen dituen karpeta irailean jarriko da salgai liburudendetan.

### JAIOTZAK

- David Martin Agreda. Ekainaren 3an.
- Jon Uribesalgo Aspiazu. 7an.
- Ainara Gomez Pedraza. 7an.

### EZKONTZAK

- Juan Francisco Ayesta Oñate eta Eguzkiñe Moreno Aldekoa. Ekainaren 12an. Zibilez.

### HILDAKOAK

- Maria Iciar Otxantesana Egiguren. Ekainaren 1ean. 70 urte.
- Veronica Txintxurreta Ugalde. 12an. 89 urte.

**ZURICH ASEGURUAK**

***Casimiro Briz Salinero***

*Aseguru-Aholkularia*

Bulegoa: Eskatu Pabilioia
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Tfnoa: 79 42 35 • Tfnoa/Faxa: 79 71 52
ARRASATE

**ZABALETA**

**Lurrindegia**

**Opariak**

Maisu Arano, 2 ARRASATE Tfnoa: 79 12 32

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

**URONDO**

**elektrizitatea**

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

**Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa**
**Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76**
**ARRASATE**

# Enpresa eta Berrikuntza Zentroaren sozietatea eratzeko plenoa


Ostiralean egingo da plenoa, arratsaldeko 7etan.

Uztailaren hasieran Enpresa eta Berrikuntza Zentroa eratuko dela eta, gaurko, ostiralerako, ez ohiko plenoa deitu du alkateak. Plenoaren helburua, Enpresa eta Berrikuntza Zentroaren sozietatea eratzea izango da.

Alde batetik zentruaren estatutuak onetsiko dira plenoan, Saiolanek egindako bideragarritasun plana onartuko da eta diru aldetik defizita egoten bada hori nola estali erabakiko da. Hitzartutakoaren arabera, Spri-k eta Udalak estaliko dute defizita. Bideragarritasun planean, berriz, gastuak eta sarrerak eta EBZaren autofinantziazioa zehazten dira. Xabier Zubizarretaren esanetan, autofinantziazioa da erronka eta horri dagokionez, plana exigentea da. EBZan abian dauden enpresen produktu berriak garatu direnez, enpresa horiek ere diru aportazioa egitea planteatuko da, eta horrela eginez gero, autofinantziazioa lortu.

Gorabehera handiena, berriz, zentruaren juntarako izendatu behar den udal ordezkariaren gaiak ekarriko du. Estatutuen eta diru kopuruen gaiak zehaztuta badaude ere, ordezkarien aukeraketan ez da akordiorik izango. Gobernu taldeak Xabier Zubizarreta proposatuko du ordezkari izateko orain arte alkateak eraman du EBZaren gaia eta. Hirukoak baliteke, bestalde, Isabel Gallastegiren izena proposatzea.

Enpresa eta Berrikuntza Zentroa ofizialki uztailaren 5ean eratuko da. Hasieran Musakolako A-20 arean kokatuko da zentrua, baina ondoren Zerrajeraren orubera eramatea da asmoa. Hasiera batean, gaur egun Saiolanen dauden bi edo hiru enpresa izango dira zentruaren orubea okupatuko dutenak. Aurkezpen ekitaldia egiten denean, uztailaren 5ean, lanean hasita dauden enpresa horien berri emango da.

75 milioiko aurrekontuarekin abiatuko da EBZa, baina diru kopurua gehituz joango da, 400 edo 500 milioira heldu arte.

OPEL

TAKOLO AUTOAK




TAKOLO AUTOAK KIROLAREKIN!

Takolok gazteengan egin du apostua, eta Santamainako Futbito Txapelketarako talde bikaina atera du, INDO-TAKOLO.

AUPA GAZTEAK!

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 • ARRASATE

## Joxemari Lasagabaster

# Argazkizale baten bizitza

Beñardo Kortabarria

**Denbora batean tinko eta azkar mugi zitzakeen eskuak, zerbait somatu, argazki-kamara eskuartean hartu, aurpegira eraman, botoitxoa sakatu, eta hortxe zegoen argazkia. Sasoi bateko kontuak horiek, gaur ezin. Parkinson gaitzak dauka harrapatuta Joxemari Lasagabaster, eskuak dardarka, ibilera trakestuta, hitza moteldduta... nekeza argazkilari lan ona egitea. Hala ere, herriko beste hainbat jaietan bezala, iazko San Juanetan argazki-kamara bizkarretik zintzilik zeukala ibili zen kalean. ASA taldekoek aurten bere argazkiez egindako erakusketa jarri dute.**



Orain 77 urte jaio zen Joxemari Lasagabaster, 1919ko ekainaren 4ean, Iturriotz kalean. Erdialdeko kuadrilarekin auzoetako kuadrilen kontra makina bat aldiz futbolean egindakoa da, tiragomekin gerran ibilitakoa, pilotazale eta pilotari bikaina, domekeroko erromerian dantza eskean askotan saiatutakoa. "Triunfoa zen orduan emakumearekin bizkarretik helduta ibiltzea. Plazako dantzaldira joan eta "por favor" batekin dantza eskatzen genuen, eta txikia izanda zaila zen kalabazarik ez jasotzea, altuek arrakasta izaten zuten, txikiok tira. Erdaraz? emakumeekin eta batez ere deklarazino kontuetan hori zen ohitura".

Plazan dantza eskean hasi aurretik, dena den, eskola izan zuen eguneroko eginbehar. Eskola espainiarrean

"PAL"
burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99
JAI ZORIONTSUAK!

Bodisca s.l.
Zeramika pabimentu eta gaineztaldurak
Otalora, z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

Lurrindegia
ERTZ
Opariak
Ferrerias, 29 behea
Tfnoa: 79 08 70 ARRASATE

hartu zituen lehen ikasketak, Errepublika denboran ikastolara joan zen arte. “Jose Markiegi abadeak bultzatu zuen hura, oso euskaltzalea zen eta. Gerra denboran afusilatu zuten. Abadetxean egon ginen lehenengo, Gurea frontoira aldatu gero. Markiegirekin eman nituen argazkilaritzako lehen pausuak, bera izan zen lehen maixua”.


Joxemari Lasagabaster

Zezenaren inguruan ibiltzea aspaldiko ohitura da San Juanetan.

## GERRARA GAZTETAN

Ez zuen asko iraungo ez ikastolak, gerra etorri zen eta. Irailaren 26an sartu ziren militarrak Arrasaten, gerra hasi eta hiru hilabete beranduago. Zerrajeran proiektilak egiten ziren ordurako. Joxemarik 17 urte zeuzkan lana ugari zegoen eta urtebetez lanean jardun zuen Zerrajeran. “18 urterekin, kintaz eraman ninduten frentera, Valentziara. Frentean bertan baino hobeto egon nintzen, hemen oso giro txarra zegoen, abertzaleak preso eraman, inbidia kontuak tartean... liberazio modu bat izan zen frentea. Sei urte egon nintzen etxetik kanpo, bi gerran eta beste lau soldadu modura. Hiru urte ohe batean lo egin barik pasa nituen, mundua horrelakoa zelakoan”.

Beste hainbat euskaldun bezala, kartzela zaindari lanetan jarri zuten Joxemari, Valentziako modeloan. Euskaldunek koadrila osatu zutela dio Joxemarik, jendeak estimatzen zituela, presoak eta bisitariak behar bezala tratatzen zituztelako. “Behin bizitza ere jokatu nuen. Bi komunista ekarri zituzten, inportanteak itxuraz, hurrengo egunean afusilatzeko. Agindua garbia izan zen: gau osoan zaintzeko fusila atearen zirrikituan jarrita eta bista kendu barik. Batek eginbeharra zuela eta, gauez atea ireki nion. Ez zuen ihes egiteko saiakerarik egin, eta hurrengo egunean afusilatu zuten. Norbait enteratu izan balitz, neu ere fusilen aurrean jarriko ninduten, ziur”.

**“Frentean bertan baino hobeto egon nintzen... liberazio modu bat izan zen”**

## ARGAZKILARIAREN LEHEN PAUSUAK

Bukaera ere iritsi zitzaion gerrari eta Joxemari Lasagabaster herrira itzuli zen. 1943. urtean, 24 urte zituen. “Juerga sasoia izan zen. Jendea pozik zegoen, gerratik bizirik irtetzeagatik. Urtetan ikusi gabeko lagunak elkartzen ziren eta mozkor

Ohiana
LORADENDA
ARTE ETA APAINKETA
ZORIONAK!!
Arrasate Pasealekua, 8 ARRASATE Tfnoa: 77 14 56

LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE
HIZKUNTZ ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK
Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

IRATI
TABERNA
Ferrerias kalea ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



JOXEMARI LASAGABASTER

Joxemariren argazkiak ondo erakusten duen bezala, jende asko ibiltzen zen lehen San Juanetan.

handiak harrapatu. Pentsa, General Tablas esaten zioten gizon bat ere bazegoen, Ignacio Bedia, zapatu eta domeketan 200en bat laguneko desfilea gidatzen zuen, denak mozkortuta". Zerrajerako lanari ekin zion berriro Joxemarik, eta aldi berean argazkilaritzako bere zaletasunari heldu zion. Pedro Sologaistoarekin elkartu eta biak joan ziren Donostiara, ikastera. Bueltatu eta baten etxean estudioa jarri zuten, laborategia bestearenean, Laso eratuz. "Orduan argazkiak atera eta atera hasi nintzen, jendeak ez zuen makinarik izaten eta. Ezkontzak, jaiak, kale ekintzak, mendira joaten zirenekoak… edozein erako kontuak irudietan jasotzen hasi nintzen, ordura arte Mondragoen zegoen argazkilaritza estiloa aldatuz. 1950. urtera arte, Pedro Sologaistoarekin batera ibili nintzen, baina gero neure kabuz hasi. Astean 40 argazki inguru ateratzen nituen, etxean errebelatu eta gero saldu, 3 pezeta inguruan. Denborapasarako modu tremendoa zen, zaletasun izugarria nuen. Batez ere San Juanetako hirugarren eguna ateratzea gustatzen zitzaidan, herri-giroa nagusi, hura zen onena. Orain ere osasuna izanez gero jarraituko nuen".

**"Meliton Manzanesek hartu ninduen, eta hiru egun torturapean egon nintzen"**

### POLITIKA MUNDUAN

Sindikal kontuetan sartu zen, baina, argazkilaria, eta hortxe ezusteko norabidea hartu zuen bere bizitzak. "ELAn nengoen gaztetatik eta berbetarako erraztasuna nuenez Gipuzkoan aurre samarrean jarri ninduten. Greba batzuk bultzatu nituen eta Martutenera eraman ninduten atxilotuta. Meliton Manzanasek hartu ninduen bere kontu, gero ETAk hilko zuen lehen guardia zibilak, eta hiru egunez torturapean egon nintzen. Hilabetera irten nintzen. Beranduago Francoren erreferendum famatua egon zen. Ezezkoaren aldeko propaganda banatzen aritu nintzen sasoi hartan. Aramaioar bat harrapatu zuten mozkortuta, ezezkoaren aldeko oihuak botatzen eta hark eman zuen nire izena. Atxilotu eta hilabete t,erdi inguru egon nintzen Gasteizko kartzelan". Epaia beranduago iritsi zitzaion, 150.000 pezetako izuna eta 5 urteko kartzela zigorra. Erabakia azkar hartu zuen: hanka egitea. Errenterian astebete ezkutuan egon


OMNIA MOTOR
GURPILAK ETA ASISTENTZIA
Eskuz garbitzen ditugu autoak
EXIJENTZIA GUZTIENDAKO PUNTU BAT
Profesionaltasuna — Garbiketa.
Eraginkortasuna — Balaztak.
Segurtasuna — Motelgailuak.
Atentzioa — Ihes-tutuak.
Kalitatea — Olio aldaketak
Araba Etorbidea, 32 • Tfnoa. 79 08 22
20.500 ARRASATE

AGIRRE-ETXE
Haragitegia
Urdaitegia
Autozerbitzua
Zarugalde, 33
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 90






BELYN
TABERNA
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 6114
ARRASATE

ROBERTO ZABALA ETXENAGUSIA
■ Azaleko gaixotasunak
■ Dermatokosmetika eta Benereologia
(Lagun-Aro)
KONTSULTA BERRIA!
MENDIA JAUREGIA-INSTITUTU MEDIKUA
Erdiko Kale, 22-1. ARRASATE Tfnoa: 79 72 16


Gustora gogoratzen ditu Joxemarik sasoi bateko San Juan jaiak.

ondoren, itsasontzian pasa zen bestaldera, 1967. urtean. "Baionan pasa nuen exilioa, Pierre Xarritonen jauregian. Emaztea han hasi zen sukaldari. Lehen urtea gogorra izan zen, Bregette abioi fabrikan lanean hasi arte, Mirage abioia egiten. ETAko laguntzaile izan nintzen, Txillardegi, Madariaga, Txomin etab. Xarritonen etxean biltzen ginen. Ohepean ere izan ditut gordeta Txominek emandako trasteak".

Amnistiarekin bueltatu zen Joxemari, nahiz eta berak Baiona gustokoago izan. Zerrajera zikin aurkitu zuen, ez zen urte batzuk lehenago utzitako lantegi bera. Nagusi berriak ere deitu zion, aurrez bidalia zutenez errepresalien beldurrez edo. Kuidadorik ez izateko erantzun zion argazkilariak, ezer ez ziotela sor. Kooperatibetan lanean hasi eta bertan jubilatu zen. Geroztik etorri zaio Joxemariri hainbeste maite duen zaletasuna aurrera eramaten uzten ez dion gaitza, Parkinsona. "Osasunak lagunduko balu... tremendoko denborapasa izan da niretzat" errepikatzen du.

## Argazkilariaren sekretutxoak

San Juanetan argazki erakusketa jarriko dute ASAkoek Monterronen. Joxemari Lasagabasterren hainbat argazki izango da ikusgai bertan.

Herriko giroa ateratzeko horrelako grina izan duen argazkilariaren sekreturen bat edo beste ezagutzeko aukera ezinhobea.

**• Argazki makina onena?**

Leika alemaniarra, dudarik ez.

**• Egin duzun argazki onena?**

Onena ez dakit. Badut bat Bruselasen ateratakoa, arrodamendu bat lehen planoan, erditik begiratuta Lenin agertzen da atzean, bere gesto tipikoaz. Lourdes Iriondoren jendaurreko azken kantaldiko bat ere oso gustokoa dut.

**• Argazkiak ateratzeko Arrasateko tokirik onena?**

Ez dago toki bat bestea baino hobea, norberak ikusi behar du argazki ona, eta horretarako bista ona behar da.

**• San Juanetan, noiz atera daiteke argazki politena?**

Lehen hirugarren egunean. Orain? Inor egoten da kalean!

**• Modelorik onena?**

Andrea, guapia eta fotogenika izan da beti. Hau ezin da esan, bestela jo eta akabauko nau, baina hura aldrebes ipinita ere ondo irtetzen dok! Hori bai, Mondragoen guapak nonahi.

**• Makina modernoak gustatzen zaizkizu?**

Argazki makina, batez ere ikasteko, ez da automatikoa izan behar. Gainera ez dituzte behar bezala egiten, gauza gehiegi dute, fotometroa da beharrezko bakarra.

**• Eguraldi baldintza egokienak argazki on baterako?**

Samurrena eta onena argi egotea da, baina eguzki barik.

TOLDOS LETE C/B
Ondo ibili San Juanetan!
ARRASATE
Tfnoa: 79 23 83

ARROGOI TABERNA
San Juanak iritsi dira, zatoz gugana!
Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

ESKIÑA TABERNA
Jaietako zure giroa!
Olarte, 25 ARRASATE Tfnoa: 79 20 20

BITTORI ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

# DRAGOI JANA '96

## SAN JUAN JAIAK

**Ekainaren 24ean • Gaueko 8.30etatik 12etara • Herriko Plazan**



Ez daukazula txartelik oraindik? Ba aguro ibili, bukatu aurretik!

Joan lehenbailehen **AED, Orkatz, AEK, Mendi taberna** eta **Iturriotz taberna**ra eta erosi zurea.

**1.000 pta. besterik ez!**




**weru**

**Ate + leihoak**

ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE

Salterain

**PVCko ate eta leihoez gain: Moketak jartzea, zoru arinak, kortxoa, Louverdrape kortinak, Kortinoba, textila...**



**Haur Dantzarien Eguna** ospatzeko 250 dantzari baino gehiago elkartu zen Arrasaten domekan. Herriko plaza kolore biziz eta soinu alaiez bete zen Euskal Herriko toki desberdinetatik etorritako dantzariei esker. Era guztietako dantzak ikusteko aukera egon zen eta guztien artean onenak Lore Gazteak eta Txikitxu taldekoak. Nola ez? Arrasatearrak izanda ez zen gutxiago espero!



**San Juanetako umeen tanborradak protagonismo berezia hartu zuen zapatuan. Arratsaldeko 7etan Eskualde Ospitaletik irten zen eta herriko kaleetan zehar desfilea egin ondoren, Herriko plazan bukatu zen. Kantinerak, tanborreroak, sukaldariak, mikeleteak, abanderadak, guztiak egon ziren tanborrada ikustera kalera irtendakoen ikusmiran.**




Ohi denez **AEDk San Juan jaietarako** pegatina atera du. Aurtengoak erderazko lema dauka eta artaburu bat erakusten du.


# La CEPA RIOJANA

Jatetxea/Taberna

**Berezitasunak:**
**patatak pipar biziekin**
**Untxia saltsan eta denetariko frijituak**

**Ferrerias, 19 • Tfnoa: 79 20 02 • ARRASATE**

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruak antolatutako **15. pintura lehiaketa** burutu zen zapatuan. Eguraldi beroa izan arren, buruan txapela jarri eta goiz partea koadroa margotzen eman zuen hainbat margolarik. Arratsaldean sari banaketa egin zen. Epamahaiaren ustez koadro onenen maila antzerakoa izan zenez, lehenengo saria hiru margolariri ematea erabaki zuten: Gurutze Galbete, Iñaki Riviere eta Carlos Carrillo izan ziren sarituak, beraientzat garaikurra eta 50.000 pezeta. Zorionak hirurei!





**Blas Madinabeitiak eta Miren Zabaletak urrezko eztaiak ospatu dituzte. 1946ko maiatzaren 25an ezkondu ziren Arrasateko parrokian eta Donostia aukeratu zuten ezkonbidaia egiteko. Aurten ezkonduta daramatzaten urteak ospatzeko meza izan zuten parrokian eta bazkari oparoa Buenuena jatetxean. Zorionak bikote!**



CIMen **ingelesezko liburu gehien** irakurri duten ikasgela eta ikasleek saritzeko lehiaketa bat antolatu dute. 6. mailako 11 urteko 11 ikaslek 284 liburu irakurri dituzte. 7. mailako 10 ikaslek 64 eta 8. mailako hiru ikaslek 17 liburu. Bestalde 6. mailako Nerea Baena, Mikel Fuentes eta Asier Alonso arrasatearrak 29 liburu irakurri dituzte bakoitzak ikasturte honetan. 7. mailako Maite atxabaltarrak 11 irakurri ditu eta 8. mailako Amagoia Madina Oñatiarrak 13. Irakurle sutsuak CIMeko ikasleak!



**Elbarrituek era guztietako kirolak** egiteko aukera izan zuten Kirol zerbitzuek eurendako antolatu zuten Kirol jaian. Iturripeko kantxan hockey-a, boleibola, atletismoa, saskibaloia eta beste horrenbeste kirol praktikatzen igaro zuten zapatu goiza. Kirola egin eta bide batez ederto pasa zutela jakin izan dugu. Ez dago gehiago eskatzerik!

EsLu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

MURUAMENDIARAZ
Gozotegia
Jai goxo, goxoak izateko
Erdiko kale, 28 ARRASATE




# Beatriz

oinetakoak

1946-1996

*50 urte*

*Zure oinak jazten!*

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tfnoa: 79 14 33

LORE
LURRINDEGIA

K A B I N A

*gorputz tratamendua*
•
*aurpegi tratamendua*
•
*drenaje linfatikoa...*

Olarte, 10
ARRASATE
☎ 79 52 50



Solariuma
dutxarekin




*Etxe txukuna*
*txoko kuttuna*

Ehune

*Otalora, 22*
*Tfnoa: 77 11 48*



# Zilarrezko eztaiak egingo ditu Zigarrolako Santa Teresa elizak

Ekainaren 23an hogeitabost urte beteko ditu Musakolako Santa Teresa elizak. Eliza gaztea da Santa Teresakoa, eliza batendako hogeitabost urte betetzea ez da esanguratsua eta. Hala ere, antolatu da ekintzarik zilarrezko eztaiak ospatzeko. Astean hitzaldia eta Aretxabaletako abesbatzaren gregoriano kontzertua izan dira. Ekainaren 23an, igandean, Jose Antonio Pagola bikarioak Santa Teresaren omenez meza nagusia emango du. Ekainaren 25ean eta 26an Santa Teresaren lurraldeetara erromes bidaia egingo da: Alba de Tormes, Salamanca, Avila eta Segoviara.

San Isidro elizarekin batera Musakolako komunitate parrokiala osatzen du Santa Teresakoak. Don Pablo Barrena da bi parrokietako apaiza.

Santa Teresa, San Esteban del Puerto eta Agerreko etxeak eraiki zirenean jaso zuen Santa Teresa eliza Mariano Espinok, etxeak eraiki zituenak. Etxeak egitean nahikoa diru egin zuela eta, auzoaren alde zerbait egin nahi eta eliza eraiki zuen.

Kanpotik begiratuta, eliza itxura handirik ez duela esan daiteke, Don Pablo Barrenak dioen bezala eliza funtzionala da. Barrutik, hala ere, Santa Teresak badu aparteko bereizgarririk. Juan de Avalos eskultore ezagunak egindako Kristo salbatzailea eta marmolezko bi aingeru daude barruan. Egurrez eginda dagoen Kristoa berezia da ez duelako zauririk ezta gurutzerik ere. Barrenak gogoratzen duenez, Juan de Avalos eskultoreak esan zion Kristo tristea egin beharrean Kristo alaiago bat egin nahi izan zuela. Horrez gain, beirate ederrak ere baditu elizak.



400 lagunendako tokia dago Santa Teresa elizan.

**Juan de Avalos eskultore ezagunak egindako Kristo salbatzailea eta marmolezko bi aingeru daude barruan**

Kanpotik eliza itxura handiegirik ez duela eta, gurutze bat egitea pentsatu da. Elizaren aurrealdean jarriko da gurutzea, zer den adierazi guran.

Zapatu eta domeketan mezak eta hala behar denean hiletak eta jaunartzeak egiten dira Santa Teresan. Barruan 400 lagunendako tokia dago.



Kristo Salbatzailea.

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Pinpirin
Lentzeria, Mertzeria
Bainurako eta umeendako arropak
Uribarri Etorbidea, 1 Tfnoa: 79 88 51

# TOUR PORRA MUNDIALA!

**Oinarriak**

**1-** Parte hartzeko orrialdearen behealdean dagoen txartela bete, ebaki eta **ARRASATE PRESS** edo **ARRASATE TELEBISTARA** bidali edo ekarri beharko da, ekainaren 30a baino lehenago.

**2-** Datorren astean argitaratuko dugu txirrindularien zerrenda osoa, eta parte hartzaile bakoitzak zerrenda horretatik 15 txirrindulari aukeratu beharko ditu. Azken orduko aldaketarik balego dortsalaren zenbakia hartuko da kontuan.

**3-** Taldekako etapak ez dira kontuan hartuko.

**4-** Egunen batean bi sektoreko etaparen bat egonez gero, bi etapa balira bezala hartuko dira.

**5-** Etapa bakoitzeko sari bat banatuko da eta Porraren irabazleak **LIZARRALDE KIROLAK**ek oparitutako **MENDIKO BIZIKLETA EDER BA**t eramango du.

**6-** Puntuaketa honela egingo da:



**7-** ARKOrekin zerikusia dutenek ezin izango dute parte hartu.

**Egunero:**
1.ak 31 puntu
2.ak 23 puntu
3.ak 17 puntu
4.ak 13 puntu
5.ak 9 puntu
6.ak 7 puntu

**Generala:**
1.ak 100 puntu
2.ak 75 puntu
3.ak 65 puntu
4.ak 60 puntu
5.ak 55 puntu
6.ak 50 puntu
7.ak 45 puntu
8.ak 40 puntu
9.ak 35 puntu
10.ak 30 puntu
11.ak 25 puntu
12.ak 20 puntu
13.ak 15 puntu
14.ak 10 puntu
15.ak 5 puntu

**TOUR PORRA MUNDIALA!**

Izena ..................................

Helbidea .................................Tfnoa ............

| | Dortsala | Txirrindulariaren izena |
|---|---|---|
| **1** | | |
| **2** | | |
| **3** | | |
| **4** | | |
| **5** | | |
| **6** | | |
| **7** | | |
| **8** | | |
| **9** | | |
| **10** | | |
| **11** | | |
| **12** | | |
| **13** | | |
| **14** | | |
| **15** | | |

# San Juanetan...

## Geu gara garra!

- AED
- AEK
- ARKO
- Arrasate Musikal-Musika Banda
- Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa
- Arrasateko Gaiteroak
- Arrasateko Udala
- ASA Argazki Taldea
- Famili eta Gizarte Hezketarako Zentrua
- Futbito Taldea
- Goikobalu
- Irratizaleak
- Kuadrila batzuk
- Lore Gazteak Dantza Taldea
- Margo Taldea
- Mondragón Brass Taldea
- Orkatz Skaut Taldea
- Pilota Elkartea
- Rock Taldeak
- Saskibaloi Taldea
- SUDC
- Trikitilariak
- Ttakun Txalaparta Taldea
- Txatxilipurdi
- Txikitxu-Arrostaitz Dantza Taldea
- Txirrindulari Elkartea
- Zeramika Eskola

## ...eta zu ere bai!

# Jaigune

## 23an
### domeka

• 5etan

**MAKALA**ren bila joateko elkartuko gara. Denok gonbidatuta!

• Gaueko 1.30etan

**KARAOKEA**

(Gaua izarrez beteta)

## 24an
### astelehena

• 6.30etan

Kale antzerkia: **TRANSITO** taldea

• Gaueko 10etan

**ALTAR+ARSENAL**

Rock gaua

• Ordu 2etan

Guztiendako **JOLASAK**

Sari eta guzti

San Juan Jaiak...

ean Kondekuko Txoznetan

## 25ean
martitzena

• 6.30etan
**MUS, PARTXIS, FUTBOLIN**
txapelketak

• 8etan
**NICK TWILLEY**
Perkusio taldea

## 26an
eguaztena

• 7.30etan
**TXUSMA + CHILD ABUSE**
Rock jaialdia

Zure saltsan!

...Geu gara garra!


HERRIKO JAIXETAN...
Herriko Rocka!!
24an
astelehena
ARSENAL
+
ALTAR
Gaueko 10.30etan
26an
eguaztena
TXUSMA
+
CHILD ABUSE
Arratsaldeko 7.30etan
Jaigunean
(Txoznetan)

# *Uglys Txinato* taldea Uribe Auzoa txapelketan jaun eta jabe






Iturripeko kiroldegian arratsaldeko 5etan Uglys Txinato eta Betrayer taldeen arteko finala jokatu zen zapatuan. Harmailak jendez gainezka eta giro aparta final handia jokatzeko. Uglys Txinatok baloia jokuan jarri eta segituan aurrea hartu zuen markagailuan. Lehenengo bi golak Iker Retesek sartu zituen, ondorengo biak Raulek.Betrayerrek aldea murriztu zuen Jorge eta Txemak sartutako golei esker. Bigarren zatian Betrayerrek beste bi gol sartu zituen, Txema eta penaltiz Tena izan ziren golegileak. Uglys Txinatok beste hiru bider zulatu zuen aurkariaren atea. Gauzak horrela 7 eta 4ko emaitzaz bukatu zen Uribe Auzoa txapelketako finala.

Uglys Txinatok eskuratu du aurtengo txapelketa. Hauek garaikurra, txapela, urdaiazpikoa, txanpain kaxa eta 50.000 pezeta jaso zituzten. Betrayerrek, bigarren sailkatuak, garaikurra, urdaiazpikoa, txanpaina eta 25.000 pezeta. Hirugarrenak Racing Molotov taldekoak izan ziren. Saria: garaikurra, urdaiazpikoa eta txanpaina. Laugarrenak berriz Dribling, garaikurra eta txanpaina izan zen euren saria. Bestalde Iker Retes finaleko jokalari onena izendatu zuten antolatzaileek. Kantxan erakutsitako trebezia eta joku ona saritzeko oparia jaso zuen Uglys Txinato taldeko jokalariak.

## San Juan Pilota Txapelketako irabazleak



Eskuz binakako San Juan txapelketako finalak alebin A eta B mailatan jokatu ziren zapatuan Iturripeko frontoian. Alebin A mailan Elorza-Losada bikoteak Etxabe-Lakunza bikotearen kontra neurtu zituzten indarrak. Partidua oso parekatuta egon zen. Azkenean berriz Elorza eta Losada nagusitu ziren 22 eta 21. Alebin B mailan beste bi bikote aurrez aurre. Arriaran-Zuazuaren aurkariak Arroiabe-Urkia. Lau pilotariek partidu polita jokatu bazuten ere bikote batek irabazi behar. Arriaran eta Zuazua 22 eta 19 nagusitu ziren. Bestalde Promozio txapelketako finala ere jokatu zen, Dominguez anaiek Jauregi Nafarreteren aurka. Dominguez anaiak hobeto kokatu ziren kantxan eta atzetik jokua ondo kontrolatuz, irabazi egin zuten 22 eta 14.

AREITIO
Jai zoriontsuak izan!
Kirolzalea bazara
zatoz AREITIO KIROLAKera
Zarugalde, 35
ARRASATE
Tfnoa: 79 38 38

# Goitibeherak protagonista Udalako aldapan behera

AEDk eta Arrasate Kirolakek antolatuta lehenengo goitibeheren txapelketa izango da domekan Udalan. 70. hamarkadan zegoen goitibeheren zaletasuna pizteko asmoz berriro animatu dira txapelketa bat antolatzera baina aspaldikoekin konparatuz gero, desberdina izango dela esan daiteke. Izan ere goitiberek ezaugarri bereziak izan beharko dituzte, gomazko gurpilak hain zuzen ere. Horrek azkarrago joatea bultzatzen badu ere seguruagoak direla dio Danel Goikoleak antolatzaileetariko batek. Dagoeneko beraz, dena gertu dute. Dena dela partehartzaileentzat asegurua lortzea izan da txapelketa burutzeko lanean ari direnen ardura handiena. Azkenean asko kostata lortu dute asegurua izatea. Orain beste beldur bat ere badute "istripuak gertatzeari diogu beldurra, jendeak irabazteko irrikan erdi zoratuta jeitsi dezake Udalako aldapa eta ez badu tresna kontrolatzen bidetik irten edo bestelako istripurik izan dezake. Horregatik kontuz ibiltzea eskatzen dugu". Euria egiten badu txapelketa ez dela bertan behera geratuko diote antolatzaileek. Iparraldetik 9 bikote etorriko dira eta hemendik beste horrenbeste espero dute, beraz bidea ez bada oso oker jartzen burutu ahal izango da txapelketa.



Goitibehera orijinalenak sari dotorea jasoko du txapelketan.

### IZENA EMATEKO GARAIZ

Bestalde gogoratuko dugu izenematea froga hasi baino ordu térdi lehenagora arte egin daitekeela. Hori dela eta, azken uneraino antolatzaileek ez dute jakingo zer nolako erantzuna izango duen Goitibeheren lehenengo San Juan sariak. Parte hartzaileek bi jeitsiera egin beharko dituzte goizeko 11.30etan hasiko den frogan, lehena erlojupekoa izango da eta bigarrenean goitibehera guztiak elkarrekin jeitsiko dira. Aldapari dagokionez, 3,5 Km.ko luzeera du eta bi edo hiru bihurgune ezik, erraza ei da jeisteko. Goitibeherekin orduko 60-70 km.ko abiadura har daiteke eta aldapak %5 edo %6ko desnibela dauka. Lehenengo 10 onenek saria jasoko dute. Txapeldunak 30.000 pezeta eta txapela eskuratuko du, bigarrenak 20.000 pezeta, hirugarrenak 15.000 pezeta, hamargarrenak berriz 5.000 pezeta. Gainera 5.000 pezetako beste bi sari banatuko dira goitibehera orijinalarentzat eta zoritxarrarentzat. Txapelketa bukatuta parte hartzaile eta antolatzaileek bazkaria izango dute Arimazuri plazan. Bazkaria arratsaldeko 3etan hasiko da.

## Partaideek kontuan hartu beharreko arauak

1.- Goitiberek hiru gurpil eta arrastak (frenoak) eraman beharko dituzte derrigorrez, gurpilak neumatikodunak izan beharko dutelarik.

2.- Taldeak bi pertsonaz osatuko dira gidaria eta bultzatzailea eta helmugan bi partaideak goitibehera gainean sartu beharko dira. Kaskoa derrigorrezkoa da biendako.

3.- Bihurgunetan ezik goitibeherak bidearen eskuineko aldetik joan beharko du ezkerreko bide-zatia aurreratzeko libre utziz.

4- Gidariak ezingo du goitibehera bultzatu.

5.- Bi jeitsiera egingo dira: lehengoa erlujupekoa eta bigarrena hogei denbora onenen arteko finala. Hogei hauen artean sartzen ez direnak ere hogeinaka jeitsiko dira. Erlojupeko eta hogeinako jeitsieren denborak batuz, azken sailkapena aterako da.

6.-Antolakuntzak ez du parte hartzaileei gerta dakiekenez erantzunkizunik izango.

7.- Neurri hauek errespetatzen ez dituzten goitibeherek parte hartu ahal izango dute, baina ez dute sari nagusirik irabazteko aukerarik izango (bai ordea orijinalenaren edo zoritxarraren sarirako aukera).

8.- Izenematea ekainaren 23an goizeko 9etatik 11etara egin beharko da Arimazuri plazan.



BENGOA
LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

**Gozatu eguzkia!**

Eguzki krema bi erosiz gero, PAYOTek bat oparituko dizu edo bestela PAYOTen diseinu esklusiboko eskuoihal bat.

Zerkaosteta, 5 • ARRASATE
Tfnoa: 79 28 85

**ONDO PASATU SAN JUANAK!**

BAZAR TOKION

*Erdiko kale, 7 • ARRASATE*
*Tfnoa: 79 9164*





Zatoz eta ezagutu itzazu Bazar Tokion berriak eskaintzen dizkizun abantailak.

SAN JUAN JAI
ZORIONTSUAK IZAN!






# "GAZTEAK ETA INTSUMISIOA"

## *VII. ARGAZKI LEHIAKETA*

**Bi kategoria:**

A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak.
B) 19-35 urte bitarteko edozein.

**Bi modalitate:**

a) Zuri beltzean
b) Koloretan

**Lanak aurkezteko epea: urriak 11**
**Informazio gehiago: Gazte Bulegoa 77 00 65**

ARRASATEKO UDALA

**Gazte Zerbitzua**


Arrasateko txirrindulariek estreinaldia egingo dute herrian.

# Afizionatu mailako txirrindulari lasterketa

58. San Juan saria lehen eta bigarren mailako txirrindulari afizionatuentzat izango da ekainaren 25ean asteartean Arrasaten. San Juan jaietan urtero antolatzen den ekintza horrek gero eta arrakasta handiagoa du. Aurten gainera Arrasate afizionatu mailako txirrindulari taldeko partaideak bertan izango dira eta azken lasterketetan bikain ibili direla kontuan hartuta pentsa daiteke herriko frogan zerbait ona egiteko gauza izan daitezkeela. San Juan saria goizeko 9.30etan hasiko da Garibaien. Txirrindulariek 140 kilometroko ibilbideari egin beharko diote aurre. Arrasatetik Aingeruguardara abiatuko dira. Hortik Bergarara berriro buelta eta Gure Ametsaraino, tartean Gatzaga igoz. Mendate hori bi bider igo beharko dute eta beste bi bider Kanpazar. Afizionatu mailan aritzen diren talde gehienak etorriko dira, Banesto, Caja Rural, Iberdrola, Olarra, Teugro besteak beste.

# Aurten ere goi mailako pilota partidua Zaldibarren

Zaldibarko frontoia bi pilota partidu intesgarrien lekuko izango da ekainaren 26an. Arratsaldeko 6.30etan dejadak, tantu borobilak, sotamanoak eta pilota munduko beste zenbait jokaldik hartuko dute protagonismoa. Ordu horretan Juan Garcia Portero "Pirau" eta Reyes "Txikita de Elosu" izango dira nor baino nor. Partidu garrantzitsuena ondoren jokatuko den eskuz binakakoa izango da. Txikito de Beneras- Txispas bikoteak Txikuri-Jose "Rioja" bikotearen kontra neurtuko ditu indarrak. Horrelako pilotariekin ikuskizuna ziurtaturik dago.

## LABURRAK

### Mondrako emakumeen bigarren erronka

Nazional mailara igotzeko play offeko bigarren partidua jokatuko dute Mondrako emakumeek Ikesi taldearen aurka domekan goizeko 11etan Zornotzan. Atxabalpen jokatutako lehen partiduan hutsnako berdinketa nagusitu zen. Talde biek gol aukera dexente sortu bazuten ere, baloiak ez zuen aterako bidea hartu. Orain arrasatearrek nahi eta nahiez irabazi beharko dute euren asmoa errealitate bihurtzeko. Ikesi taldeak ez zuen talde sendoaren itxura erakutsi lehen partiduan, beraz, Juanina Garaik zuzentzen duen taldea baikor dago domekan gerta daitekeenaren aurrean. Dena dela jakin badakite garaipena lortzea ez dena kontu samurra izango eta are gutxiago fisikoki onenean ez daudela jakinda. Jokalari asko azterketetan dabil eta beste hainbat lesionatuta. Hala ere, domekarako guztiak gertu izatea espero dute. Izan ere, Madrilgo federazioren asmoa betetzen bada talde bakarrak igoko du hurrengo fasera.

### Zikloturisten irteera domekan

Arrasateko zikloturistek 90 kilometroko irteera egingo dute domekan. Arrasatetik Lasturrera joan eta buelta. Irteera goizeko 9etan Monterrondik.

-RUMBA TABERNA-
JAI ZORIONTSUAK IZAN!!
Iturriotz kalea, ARRASATE



Aspaldiko partez, goitibehera lehiaketa antolatu dute aurtengo San Juanetarako, baina lehen ere egin izan dira Arrasaten era honetako ekintzak. Argazkiak, esandakoaren lekuko. Behekoa 1976. urtekoa da, eta urte hartan Laboraletik behera egin zen jeitsiera, argazkian ageri direnak honako hauek: **Luis Arregi, Juanjo del Valle** ***Parron,*** **Pedro Ezkurra** ***Arkitekto,*** eta **Miguel Uranga** zutik. Goitibeheran jarrita **Josetxu Etxebarria** *Arkauz* eta **Juan Bautista Agirre.** Bi urte lehenagokoa da beste argazkia, jaitsiera Udalatik egin zen batekoa. Argazkikoak, ezkerretik eskumara, honako hauek: **Iñaki Sainz, Casado, Agustin Ibarluzea** *Txispas,* **Bixente Zubizarreta** kasku barik dagoena, **Juan Bautista Agirre, Ramon Bidaburu** *Txarra,* **Jagoba Aranzabal** Zeus kamisetarekin, eta **Juanete Agiriano.**




**DISCO-BAR**

GURELEKU

**Disco-Bar Gurelekuk San Juan jai zoriontsuak pasatzera gonbidatzen zaitu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tfnoa: 79 20 29

**ETXOSTE**
**taberna**

**Ondo ibili**
**San Juanetan!**

Olarte, 22
Tfnoa: 79 09 27
ARRASATE

**T I T A R E**




Olarte kalea, 6 • Tfnoa: 77 10 16 • ARRASATE

LASAGABASTER

*Zorionak arrasatearrok!*

LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

**Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55**

*Baster-alde*



*Jatetxea*

**Denboraldiko platerak, giro onenean**

*Galartza auzoa* *ARETXABALETA*
*Tfnoa: (943) 79 24 58*




**Kalitatezko markak prezio onenean!**

Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 97 55
ARRASATE

**JAI ZORIONTSUAK!**



San Juanetako hirugarren eguneko argazkiak dira gaurkoak, 1954koa goikoa eta 1955ekoa bestea.

Erdiko kalea jendez gainezka. Aurpegi asko, hona hemen izen batzuk: **Jose Antonio Altuna, Bixente Azkarate, Daniel Ante, Enrike Vega, Sabin Urrutia, Kepa Zubiaga, Angel Ezkurra, Jon Etxebarria, Jose Ignacio Uriarte, Nikolas Arregi, Antton Orobengoa, Zorione Osinaga, Arantxa Arregi, Begoña Beitia, Elvira Villar, Mª Karmen Salas, Rosarito Atxa, Mari Herrasti, Milagros Arregi**…. Aipatzekoa da argazki honetan izozki saltzailea, karroaren ondoan agertzen den txapelduna, igandero eta jaiero izozkiak saltzen egoten zen gizona: **Teodoro Larrañaga.**

Beheko argazkia, 1955. urtekoa. Arkaitz kuadrila aurrez aurre. Gazte taldeak jantzi eta herria girotzen zuten. **Enrike Vega, Jose Luis Etxebarria, Sabino Urrutia, Fernando Lengaran, Manuel Arzamendi, Manuel Ruiz, Angel Menoyo, Martin Zendoia, Jon Zubiaga, Jose Leibar, Kepa Zubiaga, Jose Luis Mendiaratx, Jon Etxebarria, Ziordia, Eduardo Gutierrez, Bixente Azkarate, Jon Urrutia, Inaxio Zubillaga, Angel Ezkurra eta Pako Bonet** dira partaideak.



argiñe
Mertzeria eta umeen moda
Uribe auzoa,2
ARRASATE

ZABALA
oinetakoak
Ondo pasatu San Juanak!
Erdiko kale, 18
Tfnoa: 79 14 27

FELI
Janaridenda
JAI ZORIONTSUAK IZAN!!
Okendo, 3 ARRASATE

URRIN
TABERNA JATETXEA
JAI ZORIONTSUAK!
URIBARRI, 22
TFNOA: 79 95 24
ARRASATE

OLA-OSTE
Kirol denda
Bizkaia Etorb. 10
ARRASATE
TFNOA: 79 65 34

DAGLAS bideo-kluba
6.000 pelikula baino gehiago
Pelikula berrienak
Informatikan berrikuntza guztiak prezio onenean
BEPP banatzaile ofiziala
Otalora Lizentziatua, 25 • ARRASATE • Tfnoa: 79 78 19



**LENIZ**

**Garagardotegia**

*San Juan jai zoriontsuak!!*

Iturriotz, 8
Tfnoa: 79 22 29 ARRASATE

**Jai zoriontsuak izan!**

HALCON
*Bidaiak*

*Iturriotz, 23 • ARRASATE*
*Tfnoa: 79 29 88 Faxa: 79 29 29*

**AKELARRE**
**Gozotegia**

**Akelarrek jai goxo goxoak opa dizkizue!**



Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

**Lora**
*bar*

**Aupa arrasatearrak!**
**Aupa San Juanak!**

**GARIBAI 5**

TABERNA

**San Juanetan egun guztia zabalik, gau eta egun!**

**Kafeak, pintxoak, sandwichak eta abar giro aparta baten**

## HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK, 3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA

**Errentegarritasun bermatua 3 urtetan**

# % 25

**Errentagarritasun bermatua 5 urtetan**

# % 48

# BANKINTER
**A G E N T E A**

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute erretentziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretariko batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorriz aprobetxa dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren araberako aldaketa txikiren bat egon daiteke erretagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonei dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MIKEL LASA Aseguru Artekaria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74



# *Casa Ceciaga*

***Arrasaten 1908 urteaz geroztik.***

***MERTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK***

*Maalako Errabala, 3 • Tfnoa: 79 12 62 • ARRASATE*

# egizabal




## oinetakoak
## eta
## poltsak

*Jai zoriontsuak izan!*

Ferrerias, 9
ARRASATE
79 66 01

Bidekurutzeta, 13
BERGARA
76 12 28

# ZER NAHIAGO?

## Antonio Ruiz

### "Atracciones Ruiz"ekoa



- **Noiztik mundu honetan?** Orain dela 32 urtetik.
- **Noizkoa da barraka?** Ez dakit, 40 edo 50 urte izango ditu.
- **Askotan ibili zara barraka honetan?** Pentsa; fitxak nik jasotzen ditut...!
- **Zenbat balio du buelta batek?** 200 pta.
- **Nora joaten zarete barrakarekin?** Euskal Herrian, Errioxan eta Zaragozan ibiltzen gara.
- **Bizimodu gogorra da?** Ohitu egiten zara. Zailena hastea da.
- **Txikitan zer izan nahi zenuen?** Ezer berezirik ez. Orduan ez nintzen oso ondo bizi, behartsuak ginen eta etorkizunean hobeto bizitzea baino ez nuen desiratzen. Lortu dudala uste dut.
- **Zein musika jartzen duzue?** Denetarik, baita euskal musika ere.
- **Edari bat?** Ardoa.
- **Lana egiteko uda ala negua?** Uda, jende gehiago etortzen da eta.
- **Defektu bat?** Urte asko ditut.
- **Bertute bat?** Osasun onekoa naiz.
- **Pelikula bat?** Ez naiz zinera joaten baina telebistako guztiak gustatzen zaizkit.
- **Zer egitea gustatzen zaizu?** Dantzan egitea. Dantzaldietan nire emaztearekin dantzatzen dut beti eta asko gustatzen zait: tangoak, pasodobleak...
- **Ligatu ala ligatua izan?** Berdin zait; ez dut horretarako adinik.
- **Neska lagun asko izan zenuen gaztetan?** Ez.
- **Piropozalea zara?** Ez, sekula ez dut piroporik bota.
- **Zer ordutan jeikitzen zara?** 9.30etan.
- **Gauetan ze ordutan isten duzue barraka?** Goizeko 3ak edo 4ak aldera.

LEHIAKETA

## Gazteendako Argazki lehiaketa

Arrasateko Udalak "Gazteak eta Intsumisioa" VII. Argazki Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan bi kategoria egongo dira: lehenengo kategoria Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteentzat eta bigarren kategoria 19-35 urteko edozeinentzat.

Gaia "Gazteak eta Intsumisioa" izan behar da eta argazkiak zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu daitezke. Argazkien formatoa librea izango da lehenengo kategorian; bigarrenean berriz gutxienez 18x24 eta gehienez 30x40 zentimetrokoak izan beharko dute. Argazki guztiak 30x40 zentimetroko kartulina soporteetan joan beharko dute. Bakoitzak, gehienez, 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Lanak aurkezteko epea urriaren 11an amaituko da. Udaleko Gazte Zerbitzura, Udaletxea, 20.500 Arrasate helbidera bidali behar dira argazkiak. Erabakia urriaren 18an arratsaldeko 7etan Monterronen emango da jakitera. 20.000 eta 50.000 pta arteko sei sari banatuko dira.

HIRE

LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIRAKO ETA
NARRUZKO ARTIKULUAK

Iturriotz, 4 • ARRASATE
Tfnoa: 79 14 84




Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

*Iban Garcia*

# Zuberoako dantzekin maiteminduta

**Iban Garciak 19 urte ditu eta 7rekin hasi zen Lore Gazteak taldean euskal dantzak ikasten. Bere dantza ezagupenak aberastu nahiean, Zuberoako dantzak ikasi berri ditu 6 hilabetetan. Arrasaten berak eta beste gazte batek baino ez dakite dantza hauek dantzatzen. Ibanek zailak bezain ederrak direla dio. Horiek ikusteko aukera ekainaren 25ean arratsaldeko 8.30etan Herriko Plazan izango da.**



**— Zuberoako dantzak zailak dira ikasteko?**

— Bai, zailak dira. Gainera, Gipuzkoako dantzen aldean oso desberdinak dira, pausoek ez dute zerikusirik. Fisikoki ere badute zailtasunik, salto asko egiten da eta hanketako muskuloak ondo landu behar dira. Kabriola asko dituzte, baita entresaltak ere. Gipuzkoako dantzetan lurrean egiten diren pausuak Zuberoakoetan airean egiten dira. Erritmoz ere azkarragoak dira. Dena den, oso politak dira, nire ustez Gipuzkoakoak baino politagoak.

**— Zergatik politagoak?**

— Ez dakit, niretako nobedade bat izan dira dantza hauek eta behar bada horregatik gustatzen zaizkit horrenbeste. Bestalde, dantzetako pertsonaien jantziak oso politak eta ikusgarriak dira. Pertsonaiak Txerrero, Gathuzain, Zamalzain, Kantiniersa eta Enseiñaria dira eta bakoitzak, dantza egitearekin bat, istrumentu bat eramaten du eskuetan. Horrek zailtasuna ematen dio dantzari eta baita ikusgarritasuna ere.

**— Non lortu dituzue jantziak?**

— Eskoriatzan apirilaren 28an ospatu zen dantzarien egunean estreinatu genituen dantza hauek eta Donostia eta Irundik ekarri genituen jantziak. Gure asmoa orain bailaran jantzi batzuk egitea da, nahiz eta oso garestiak diren.

***"Gipuzkoako dantzetan lurrean egiten diren pausuak Zuberoakoetan airean egiten dira"***

**— Badute esanahirik dantza hauek?**

— Aintzinako dantzak dira eta maskaradetan egiten dira. Bi talderen arteko lehia edo guda errepresentatzen dute. Talde bietan pertsonaia berdinak daude baina kolore desberdineko jantziekin: bata beltza eta bestea gorria. Guk berriz, talde bakarreko dantzak egiten ditugu, inolako lehiaren errepresentaziorik gabe.

**— Zenbat dantza ikasi duzue?**

— Izatez ikasi ditugunak baino dantza gehiago dira baina guk bost baino ez ditugu ikasi: Boastitzea, Barrikada, Satan-Dantza, Gabota eta Godalet-Dantza. Amaitzeko beste dantza bat sortu genuen; Aintzina-Pika.

**— Dantza hauek jendeari irakasteko asmorik baduzue?**

— Lore Gazteak taldeko lagunei irakasten hasiak gara. Neska askok eman du izena baina mutil bakar batek. Kontua da, ohituraz, gizonezkoek soilik dantzatu dezaketela dantza hauek, beraz, neskei irakasteko prest gaude baina kalean dantzatzerako orduan gizonezkoek soilik dantzatu ahal izango dute.

Arreta haundiko sukaldea

UGARAN jatetxea

Giro abegikorra

Garagartza auzoa — Tfnoa: 79 76 58 — ARRASATE

# Orfeoiaren mendeurrena
# Kantariak diligentzian Arrasateraino

Donostiako Orfeoiak bere mendeurrenaren ospakizunak egingo ditu Arrasaten ekainaren 28an. Egun horretan Arrasaten eskainiko dituzten kontzertuen arrazoia aurkitzeko 100 urte atzera egin beharra dago. Izan ere, Donostiako Orfeoiaren lehenengo kantaldia Arrasateko plazan izan zen 1896an.




Donostiako Orfeoiak 1896ko ekainaren 7an Arrasaten eskaini zuen bere lehen kantaldia.

**Arrasatera diligentzian**

Miguel Pelay Orozcok idatzitako “Orfeon Donostiarra: Su historia-Bere kondaira” liburuan horrela jasotzen da bisita horren testigantza: 1896an Antonio Arzak poeta donostiarrak zera esan zion Joaquin Barojari- “Zergatik ez zoazte Mondragoera?”; Denbora gutxi barru, ekainaren 7an goizeko 7.30etan Donostiako “Sociedad Coral”eko 20 kantarik Donostiatik Zumarragara zihoan trena hartu zuten, ondoren, diligentzian, Arrasatera etortzeko. Errepertorioa “Goizeko Izarra”, “Suediar Koruak” “Ume eder bat”, “Boga Mariñela”, “Ilunabarra”, “Xarmangarria” eta “Gernikako Arbola” izan zen. Luzuriagak zuzentzen zuen taldearen arrakasta izugarria izan ei zen. Talde hori, hilabete gutxi barru, Donostiako Orfeoian bihurtu zen.

**Arrasateko kantariekin harremana**

1941an Donostiako Orfeoiko zuzendaria zen J. Gorostidi Arrasateko Parrokiako Abesbatzarengana zuzendu zen. Izan ere, Donostiako Orfeoia Granadako Festibalean parte hartzera zihoan eta ahotsen beharra zuen. Urte horretan eman zen lehen lan harremana.

1970ean Orfeoiko zuzendaria zen Antton Ayestaran eta Arrasateko Danok koruko zuzendariaren, Juanito Arzamendiren artean elkarlan estua hasi zen. Geroztik Arrasateko kantariak elkarlanean aritu dira Orfeoiarekin.

Ekainaren 28an duela 100 urte Orfeoiak Arrasaten eman zuen kontzertu bera errepikatuko da Herriko Plazan. Arratsaldeko 5etan diligentzian helduko dira kantariak eta 6etan leku berean kantaldia eskainiko dute. Arratsaldeko 8.30etan berriz, Mendeurren Kontzertua izango da Amaia Antzokian Donostiako Orfeoiaren eta Euskadiko Orkestraren eskutik Jose Antonio Sain Alfaroren zuzendaritzapean. Besteak beste Chueca, Vives, Verdi, Borodin eta Guridiren obrak eskainiko dituzte.


AGUSTIN
Auto Soinua

• Karburazioa
• Kotxeen osagarriak
• Telefonia digitala (Airtel)

Uribarri Etorbidea, 16
Tfnoa: 79 73 58
ARRASATE

Uriarte
SPORT
Ondo pasau San Juan jaixak!
Olarte, 6 • Tfnoa: 79 27 78 • ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

ARRASATE
GARBIKETAK S. COOP.
Enpresa, tailer eta bulegoen garbiketa, mantenimendua
Etxebizitzak, lokalak eta obra amaierako garbiketak
Uribarri, 20 ARRASATE
Tfnoa eta Faxa: 79 70 39

ARRASATE
AUTOZERBITZUA
Autoen garbiketa eskuz: tapizatuak, jarlekuak...
Olio, gurpil, bateria etabarren aldaketa.
Mekanika orokorrean
Uribarri, 20 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 76

• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

# Jaietako musika eskaintza

## GAUEKO DANTZALDIAK

❑ **Gaubela**
**Noiz:** Ekainak 23, 01.00etatik aurrera.
**Non:** Herriko Plazan.
**Noiz sortu:** 1986an.
**Zenbat partaide: 5**
**Musika:** Denetarik.
**Diskak:** 1.

❑ **Egan Berria**
**Noiz:** Ekainak 24, 23.30etan.
**Non:** Herriko Plazan.
**Noiz sortu:** 1995.
**Zenbat partaide:** 6.
**Musika:** Denetarik.
**Diskak:** 10.

❑ **Gozategi**
**Noiz:** Ekainak 25, 23.00etan.
**Non:** Herriko Plazan.
**Noiz sortu:** 1992an.
**Zenbat partaide:** 3.
**Musika:** Trikitixan oinarrituta musika fusioa.
**Diskak:** 2.

❑ **Drindots**
**Noiz:** Ekainak 26, 22.00etan.
**Non:** Herriko Plazan.
**Noiz sortu:** 1981ean.
**Zenbat partaide:** 5.
**Musika:** Denetarik. Berezitasuna: Rocka.
**Diskak:** 3.

## KALEKO MUSIKA

❑ **Arrasateko Gaiteroak**
**Noiz:** Ekainak 24, 25, 26, 08.30etan.
**Noiz sortu:** 1979an.
**Zenbat partaide:** 15.
**Musika:** Denetarik.
**Diskak:** Ez.

❑ **Oria txaranga**
**Noiz:** Ekainak 23, 12.00etan.
**Noiz sortu:** 1976an.
**Zenbat partaide:** 9.
**Musika:** Jotak, rocka, folklorea...
**Diskak:** Ez.

❑ **Iraunkorrak txaranga**
**Noiz:** Ekainak 24, 19.00etan.
**Noiz sortu:** 1992an.
**Zenbat partaide:** 9.
**Musika:** Denetarik.
**Diskak:** Ez.

❑ **Incansables txaranga**
**Noiz:** Ekainak 26. 11.30etan eta 19.00etan.
**Noiz sortu:** 1971an.
**Zenbat partaide:** 9.
**Musika:** Fandango, Arin Arina, Mexikanak, Txatxa-txa...
**Diskak:** 4.

❑ **Txalaparta txaranga**
**Noiz:** Ekainak 25ean, 19.00etan.
**Noiz sortu:** 1982an.
**Zenbat partaide:** 11.
**Musika:**Vals, Tango, Pasodoble, Rock, blues...
**Diskak:** Kasette eta CD bana.

❑ **Arrasate Musikaleko Banda**
**Noiz:** Ekainak 24, 12.00etan kalejira eta 13.00etan Monterronen kontzertua.
**Noiz sortu:** 1995ean.
**Zenbat partaide:** 47.
**Musika:** Klasikoa, pelikuletako musikak, doinu herrikoiak...
**Zuzendaria:** Eduardo Arzamendi.

❑ **Mondragon Brass**
**Noiz:** Ekainak 25, 19.00etan.
**Noiz sortu:** 1996an.
**Zenbat partaide:** 13.
**Musika:** Metal-haizezko istrumentuak.
**Zuzendaria:** Alberto Urretxo.

## ROCK TALDEAK

❑ **EH Sukarra**
**Noiz:** Ekainak 21, 10etan.
**Non:** Gaztetxean.
**Noiz sortu:** 1989an.
**Zenbat partaide:** 4.
**Musika:** Rebel Rock.
**Diskak:** 4.

❑ **P.I.L.T**
**Noiz:** Ekainak 21, 10etan.
**Non:** Gaztetxean.
**Noiz sortu:** 1994an.
**Zenbat partaide:** 4.
**Musika:** Rock gogorra.
**Diskak:** Maketa 1. Aurtengo "Euskadi Gaztea Maketa Lehiaketa"ko irabazleak.

❑ **Ekon**
**Noiz:** Ekainak 22, 7etan.
**Non:** Ekaitz tabernan.
**Noiz sortu:** 1994an.
**Partaideak:** Xabi, Iñigo, Juan, Yago, Iban.
**Musika:** Trash Industriala.
**Diskak:** Maketa 1.

❑ **Iskanbila**
**Noiz:** Ekainak 22, 7etan.
**Non:** Iluntz tabernan.
**Noiz sortu:** 1992an.
**Partaideak:** Aritz Etxebarria, Gotzon Biteri, Xabier Lasagabaster, Xabi Mancebo.
**Musika:** Rock.
**Diskak:** -

❑ **Brutal Melody**
**Noiz:** Ekainak 22, 7etan.
**Non:** Ekaitz tabernan.
**Noiz sortu:** 1994an.
**Partaideak:** Txemi, Pako, Aner, Juan Ramon, Juan.
**Musika:** Trash Death.
**Diskak:** Maketa 1.

❑ **Altar**
**Noiz:** Ekainak 24, 22.30etan.
**Non:** Jai gunean.
**Noiz sortu:** 1993an.
**Partaideak:** Miguel Maese, Ion Ramila, Jose Mari Agirrebeitia, Juanma Cobos.
**Musika:** Trash Speed.
**Diskak:** Maketa 1.

❑ **Arsenal**
**Noiz:** Ekainak 24, 22.30etan.
**Non:** Jai gunean.
**Noiz sortu:** 1991an.
**Partaideak:** Mikel Oteiza, Unai Pando, Roberto Iglesias, Luis Alonso.
**Musika:** Rock.
**Diskak:** Maketa 1.

❑ **Txusma**
**Noiz:** Ekainak 26, 19.30etan.
**Non:** Jai gunean.
**Noiz sortu:** 1994an
**Zenbat partaide:** 4. Patxi Oregi, Oskar Aransaez, Ion Lasagabaster, Ioseba Izarzelaia
**Estiloa:** Heavy.
**Diskak:** Maketa bat.

❑ **Child Abuse**
**Noiz:** Ekainak 26, 19.30etan.
**Non:** Jai gunean.
**Noiz sortu:** 1989an
**Partaideak:** Tito, Igor, Txemi, Largo, Ñako.
**Musika:** Grind Industriala.
**Diskak:** Maketa-LP 1.

❑ **Nick Twilley perkusio taldea**
**Noiz:** Ekainak 25, 20.30etan.
**Non:** Jai gunean.
**Noiz sortu:** Taldeko lehen emanaldia izango da.
**Zenbat partaide:** 6.
**Estiloa:** Inprobisazioa. Afrikar, asiar... folklorean oinarrituta.

# AUZOLANDEGIAK 96

## IPARRALDEAN

SENPEREN (LAPURDIN)

## *Udarako planik onena!*

- Euskalgintzak eta kulturgintzak Senperen bere txokoa izan dezaten, etxe bat egokitu nahi du eratu berria den OSTIKENIA ELKARTEAK.

- Edozein lan egiten dakien jendea behar da.

- Goizez lana egingo litzateke 8etatik 12.30etara eta arratsaldez Iparraldea ezagutuko litzateke.

- 2 txanda antolatu dira:
  Uztailaren 17tik 31ra
  Abuztuaren 17tik 31ra
- Matrikula: 15.000 pta (14.000 pta bazkide direnentzat)

Iparraldean euskarari lagundu, Iparraldeko inguruak ezagutu eta lan giro jator eta euskaldun baten 15 egun igaro gura badituzu, zatoz berandu baino lehen AED elkartera edo dei egizu 77 12 28 telefonora.






Auzolandegi hauek AEDk eta OSTIKENIA ELKARTEAk antolatzen dituzte Arrasateko Udaleko Euskara eta Gazteria Batzordeen laguntzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren kolaborazioarekin.










Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Zubizarreta



GALERIA 44

Denda berezia

Zerkaosteta, 8 Tfnoa: 79 90 50 • ARRASATE

CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

*"Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"*

96-97 ikasturtea

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**

**Alemana, frantsesa, ingelesa eta gainera umeendako nobedadeak ditugu**

INFORMAZIOA

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32/79 65 54

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

**AMI oinetakoak**




OINETAKOEN AUTOZERBITZUA
Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

# *Eguzki Laruk* lehenengo aldiz bisitatuko ditu gaztetxo arrasatearrak

Ekainaren 25ean, ume eta gaztetxook munduan oso ezaguna den pertsonaia famatu baten bisita jasoko duzue. Kolorez laru-larua dela eta, Eguzki Laru da urtean zehar berotasuna eta argitasuna ematen digun lagunaren izena.

Iazko udan Txatxilipurdi taldeko begirale batzuk egunpasa Anbotora joan ziren eta Anbotoko Marirekin egin zuten topo. San Juanak pasatu berri zirela eta, herriko jaietan gaztetxoek zer moduz pasatzen duten galdetu zien Marik. Txatxilipurdikoek San Juanetan haurrendako gauza gutxi egoten dela esan zioten, eta orduan, jaiak alaitzeko lagun bat bidaliko zuela erantzun zien Marik. Lagun hori Eguzki Laru da, eta aurten lehenengo aldiz bisitatuko ditu herriko gaztetxoak. Eguzki Laru umore oso oneko pertsonaia da, eta berba egitea ere oso gustoko duenez jaiak asko alaituko dituela espero dugu.



**Eguzki Larurekin egunpasa zoragarria**

Eguzki Laruri ongi etorria goizeko 11etan egingo zaio Herriko Plazan, eta egun guztia Arrasateko gaztetxoekin pasatuko du. Hasieran urtean zehar non egon den kontatuko digu Eguzki Laruk, eta herrian gertatu diren gauza batzuk ere komentatuko dizkigu. Pentsatuko duzuen bezala, Eguzki Laru oso lanpetuta ibiltzen da hara eta hona, eta horregatik, urtero Arrasateko haur bati mesede bat eskatuko dio. Beraz, ongi etorria egindakoan mesedea zein den jakingo dugu. Eskaria betetzea tokatzen zaion haurra, urtean zehar mesede hori aurrera eramaten saiatu beharko da. Garrantzitsua izango da eskaria betetzea, bestela Eguzki Laru haserretu eta nork daki urte osoa ilunpetan eta izotz artean bizi beharko ote dugun! Ondoren jolasak, tailerrak, keramikagintza eta irratizaleen txokoa izango dira plazan bazkalordua heldu arte.

Egun horretan patata tortila bokata ekarri beharko duzue gaztetxo guztiok, eta horrela, bazkalordua heltzen denean trikitilarien laguntzarekin Santa Barbarara igoko dugu bazkaltzera. Ez arduratu edariak eramatea Udalak edari freskagarriak banatuko dizkigu dohainik eta.

Santa Barbaran bazkaldu eta arratsalderako berriz ere plazara. Arratsaldeko lauretan Piratak izeneko ikuskizun paregabea izango da ikusgai. Baina eguna ez da hor bukatuko, ez ez! Eguzki Laruk badu sorpresatxo bat eta ikuskizuna amaitu bezain laster sorpresa hori zein den jakingo dugu. Dagoeneko sorpresa zein den jakiteko irrikaz egongo zarete gehienok.

Egunari akabera emateko, berriz, guztiok zezen plazara joango gara eta han haurrendako jolasak eta zezentxoak izango dira ondo pasatzeko. Behin hori egindakoan Eguzki Laruk agur esango digu. Seguruen oso pozik joango da herriko umeekin egun zoragarri bat pasatu ostean.

Ez ahaztu ekainaren 25ean, datorren asteartean, laguntxo berri bat ezagutuko duzue. Zatozte! Ziur naiz aurtengo San Juanak ez direla iazkoak bezalakoak izango. Azkenean Arrasateko gaztetxoek baduzue berezi zeundako izango den egun bat.

**EGUZKI LARUREN MEZULARIA**

OKORETEGI
KAFETEGIA
Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tfnoa: 77 03 62

# ATB ere, jai

**Aurten ere Arrasate Telebistak bere tramankulu guztiak aterako ditu Sebero Altubera. Modu horretan herritarrek Arrasateko telebistak zelan funtzionatzen duen eta programak zelan emititzen diren ikusteko aukera izango dute. Goizeko emisioak eguerdiko 12.30etan hasiko dira eta arratsaldekoak 6etan. Emisio ordu horietan programa desberdinak burutuko dira: lehiaketak, magazinak, bideoak, bertso saioak... beti ere San Juan jaietan murgildu eta jaiez gozatzeko helburuarekin.**

## Ze Bero ATBn!

Gaztetxoenei zuzendutako lehiaketa dibertigarria izango da hau eta Eider Otxoak eta Unai Torresek aurkeztuko dute. Astelehen, astearte eta asteazkenean jokatuko da lehiaketa. Egun bakoitzean 3 laguneko bi taldek hartuko dute parte eta asteazkenean, aurreko bi egunetan irabazle geratutako taldeek finala jokatuko dute. Lehiaketa hainbat froga dibertigarritan oinarrituko da, hala nola, traste desberdinen bila kalera ateratzea, pajita batekin ur botila bat betetzea, denbora jakin batean ahalik eta arropa gehien janztea, antzerkia egitea, karaokea, asmakizunak, hainbat jaki gordinik jatea eta beste asko.



**Sariak:** Partaide guztientzat hondartzarako palak eta irabazleendako patinak.

## Programazioaren ordutegia

| | 24 | 25 | 26 |
|---|---|---|---|
| 12.30 | Fagor Lehiaketa | Magazina | Ze Bero ATBn! |
| 14.00 | • | • | San Juanak irudietan |
| 18.00 | Ze Bero ATBn! | Ze Bero ATBn! | Amaiera |
| 19.00 | San Juanak irudietan | San Juanak irudietan | • |
| 19.20 | AEDren bertso saioa | AEDren bertso saioa | • |
| 20.30 | Amaiera | Amaiera | • |

INGELESEZKO KLASEAK
Bazter-Alai
INGELES
JAI ZORIONTSUAK!
Arrasate Pasealekua, 12 behea • Tfnoak: 77 01 27 / 79 24 59

ZUK NAHI
Taberna
Pintxo goxoak
giro onenean!
Erdiko kale
Tfnoa: 79 79 26
ARRASATE

MERKEKILO
Oihalak
Kortinak
Ferrerias, 5
Tfnoa: 79 15 00
Zorionak Arrasate!

# ...etan blai!

## Magazina

Asteazken eguerdian emitituko da. Aurkezleak Iñaki Olaizola eta Amaia Garai izango dira. Bi orduko iraupena izango du eta urtean zehar albiste izan diren lagunei egindako elkarrizketetan oinarrituko da. Elkarrizketatuak Mondra taldeko emakumeak, Iñurrategitarrak, Mondragon Unibertsitatea dela eta Eskoriatzako Irakasle Eskolako zuzendaria den Jesus Garmendia, Eugenio Uribarren izozkigilea, Naiara eta Ines trikitilariak, Goikobaluko zuzendari berria eta beste asko izango dira. Elkarrizketen artean bertsolariak, trikitixa, txiste kontalariak, txaranga eta Goikobaluren kantuak izango dira.



## Fagor Lehiaketa

Urtean zehar ATBn ostegunero emititu den "Elkartean" programaren finala. Tomas Axpek eta Karmele Zuazubiskarrek aurkeztuta. Programa hau finalista geratu diren elkarteen arteko lehian oinarrituko da. Lehiaketa hori elkarteek prestatu beharreko plater goxo batean oinarrituko da: legatza saltsa berdean. Finalean parte hartuko duten elkarteak Leintze, Iturripe, Leze Txiki, Jentil Ola, Uribarri eta Udalaitz Azpi dira. Epaimahaia Bixente Pagoagak eta Aitziber Retolazak osatuko dute.

**Sariak:** Finalista guztiek frijigailu industrial bana eramango dute opari gisa. Elkarte irabazleak kongeladore handi bat irabaziko du.

## San Juanak irudietan

Jaiek eman dutenaren berri jasotzeko, egun bakoitzean jai ekintzekin eta elkarrizketekin osatutako 20 minutuko bideo-erreportai bana emitituko da.

## AEDren bertso saioa

AEDk antolatuta astelehenean eta asteartean hainbat bertsolari ATBko platoan arituko da bertsotan. Bertso saiook ordubeteko iraupena izango dute. Astelehenean Irazu eta Lizaso bertsolariek kantatuko dute eta asteartean Deba Bailarako hainbat bertsolari gaztek.




## San Juanak Arrasate Irratiko uhinetan

Arrasate Irratiak ekainaren 24, 25 eta 26an zuzenean emango du San Juanen berri, goizeko 9etan hasita. San Juan egunean goizeko 9etan hasiko da saioa entzierroaren erretransmisioarekin eta meza nagusia amaitu arte luzatuko da. Ondorengo bi egunetan goizeko 9etan hasi eta 11ak arte egongo da irratia San Juanen berri ematen.

Entzierroa eta bigantxen erretransmisioa, San Juan bezperako Salvea, meza nagusia, Arrasate Musikaleko musika bandaren emanaldia, Sebero Altubeko bertso saioak, 58. San Juan Saria txirrindulari lasterketaren jarraipena, jaietako protagonistekin elkarrizketak eta kaleko giroaren berri jaso ahal izango da zuzenean Arrasate Irratiaren bidez, 107.7 FMan.

# ETXERAT TABERNA

**ONDO PASAU JAIXAK!**
**EZ GAUDE DENOK!**

ZURGIN KANTOI, 5 · TFNOA: 79 20 52



## *Elizondo*
*kafetegia*

Garagartza auzoa • ARRASATE • Tfnoa: 79 15 99

**ONDO PASATU JAIAK!**

ELIZONDO

*Oskar Vitoria*

**BITXI LANTEGIA**
**ZURE GUSTOKO BITXIAK!**

Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan)
Tfnoa: 77 01 44 • ARRASATE





NEKAZALTURISMOA

## UNZUETA
JATETXEA eta LOGELAK

- **Egunero zabalik**
- **Lau gela bere bainuarekin**
- **120 lagunendako jantokia (banketeak, jaunartzeak, ezkontzak, enpresa bilerak…)**
- **Espezialitatea: haragi eta arrain parriladak**

Zabola, z/g • Tfnoa: (945) 44 50 95 • ARAMAIO (Araba)

## Etxebizitzak

• **Bungalowa alokagai Peñiscolan** uztaila eta irailean. Tfnoa: 77 05 88.

• **Garajea alokatuko nuke** Erguin-Larrea auzo inguruan. Tfnoa: 79 41 29.

• **Makatzenan etxebizitza salgai.**Jantzita, 3 logela, egongela, berogailua.... Tfnoa: 79 79 86.

• **Makatzenan etxebizitza salgai.** Oraintxe guztiz berriztuta. Berogailua, egurrezko lurra, PVC, 3 logela, ganbara, lorategia... Tfnoa: 79 07 64.

• **Etxebizitza salgai Arrasaten.** Tfnoa: 79 36 53.

• **Etxebizitza salgai Makatzenan.** Tfnoa: 79 61 15 (gauez).

• **Pisua salgai Cordoba y Oro kalean** (San Andres). 3 logela, egongela, sukaldea, berogailua... Tfnoa: 79 67 65. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera.

• **Lau lagunendako pisu bat** alokatu nahi genuke. Tfnoak: 64 31 95. Josu edo 51 02 68 Juanma. Astebukaeretan deitu.

• **Familia batek pisu bat** alokatu nahi luke Arrasaten. Tfnoa: 94- 62 03 220

• **Alokatutako pisu bat** osatzeko jendea behar da. Tfnoa: 79 86 06. Mikel.

• **Larrea plazan taberna** berria alokatzen da. Tfnoa: 77 14 93

• **Pertsona bat behar da** pisua osatzeko. Tfnoa: 79 25 98. Marijo. Goizeko 10etatik 11etara deitu.

• **Ikasle batzuk pisu bat alokatu nahi dute.** Tfnoa: 74 09 23. Mikel.

• **Garaje bat salgai Uribarri Etorbidean.** Karabanak sartzeko balio du. Tfnoa: 79 97 09.

• **Uztailerako pisu bat alokatu** nahi dugu Arrasaten. Tfnoa: (947) 50 99 59.

## Lana

• **OHOko klase partikularrak.** Tfnoa: 79 69 41.

• **Neska euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxekolanak egiteko. 79 03 26. Gauez deitu.

• **Jatetxe batean kamarera** bat behar da. Tfnoa: 945-44 50 95.

• **Lan egiteko gogoa** eta beharra duen jendea behar da. Deitu goizeko 9etatik 11etara, arratsaldeko ordubatetik 3etara eta gaueko 9etatik 11etara. Tfnoa: 71 52 45.

• **UBI mailako klase partikularrak** hartuko nituzke. Tfnoa: 79 30 47.

• **Lizentziatuak,** ingelesezko klase partikularrak emango lituzke. Esperientzia daukat. Tfnoa: 79 35 56.

• **Neska bat gertu** arratsaldetan lan egiteko, umeak zainduz edo etxeko lanak eginez. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.

• **Neska bat behar da** uztailean arropa denda baten lan egiteko. Tfnoa: 79 59 78 edo 79 25 71. Belem.

• **25 urteko mutila edozein lan** egiteko gertu. C-2 gidatzeko b aimena daukat. Tfnoa: 78 34 43. Manolo.

• **Emekumea umeak zaintzeko gertu.**Tfnoa: 79 28 80.

• **Arotz bat behar dugu** lehen edo bigarren mailako ofizialaz. Interesatuok deitu 79 34 40 zenbakira. Ordutegia: goizeko 10etatik ordubata arte eta 4.30etatik 8etara.

## Denetarik

• **Bost giltza galdu zaizkit.** Tfnoa: 79 46 45.

• **Zaldi bat erdibana eduki nahi duzu?** Tfnoa: 76 30 01. Rene.

## Salerosketak

• **Fagor markako mikrozeramikako** plaka berria salgai. Prezio egokia. Tfnoa: 79 95 79.

• **Komertziorako baliagarriak** diren kristalezko estanteriak salgai. Tfnoa: 79 65 31.

• **Eskulanak egiteko larrua salgai.** Tfnoa: 79 65 31.

• **Citroën AX, SS-AM autoa salgai.** Oso prezio ona eta urtebeteko garantiarekin. Tfnoa: 79 18 18 edo (908) 57 93 86.

• **Yamaha XS-400 motoa salgai.** NA-M. Egoera ona ITV orain dela gutxi gaindituta. 150.000 pta. Tfnoa: 79 18 53. Jabi.

• **Aguerre markako pianoa salgai.** 80 urte ditu. Lan orduetan. Tfnoa: 76 15 58. Juan.

• **Kanpinerako jantzita dagoen** Nissan Vanettea salgai. Tfnoa: 79 03 93.

• **Kawasaki motoa salgai. ZZR-600.** Ondo zainduta. 550.000 pta. Kaskoa opari. Tfnoa: (908) 57 64 83. Josean.

• **Kanpineko karro-denda alemana salgai.** Tfnoa: 71 43 86.

• **Kawasaki 500 GPZ motoa salgai.** SS-AB. Tfnoa: 76 47 74. Joxe Migel.

• **Zaldiak saltzen dira.** Tfnoa: 79 61 15. Gauez.

• **TA 2212 fotokopiagailua salgai.** Oso gutxi erabilia. 105.000 pta. Tfnoa: 79 08 45.

• **ECR 375 kutxa erregistradorea salgi.** 65.000 pta. Tfnoa: 70 08 45.

• **Premier bateria osoa salgai.** Signia modeloa. Oso egoera onean. Urte térdi dauka eta oso onda zainduta dago. Tfnoa: 14 79 79.

• **Efektuen prozesadorea** "Zoom 9.000 S", gitarrarako efektuen prozesadorea, soinu mahaia, amplifikadorea eta bafleak salgai. Tfnoa: 79 95 83. Josu.

# Aste Gazte

**OPORRAK PRESTATZEN ARI BAZARA...**

**Txartelak**

• Atzerrira zoazten ikasleei "IKASLEAREN NAZIOARTEKO TXARTELA" (ISIC) eskuratzea komeni zaizue garraio, ikuskizun, alojamendu, eta abarretan deskontuak lortzeko. Adina: 12-29 urte. TIVEn egingo dizuete, 700 pezetaren truke.

• Ikasle ez zareten 26 urtetik beherakoentzat "GAZTEEN NAZIOARTEKO TXARTELA" (YIEE) dago, aurrekoaren abantaila berberak dituena. Hau ere TIVEn.

• Ezagunagoa dugun "GAZTE TXARTELA" ere eraman dezakezue, hainbat herrialdetan balio du eta. Adina: 15-25 urte (biak barne). Orain Kutxan egiten da, 500 pezetaren truke.

• Aterpetxeak erabiltzeko asmorik baduzue, "NAZIOARTEKO ATERPE TXARTELA" beharko duzue, mundu osoan zehar sakabanatuta dauden aterpetxeetarako ateak zabalduko dizkizuena. Ez dago adin mugarik, baina modalitatearen arabera (indibiduala; 26 urtetik gorakoentzat; taldeentzat; familiarra) tarifa desberdinak daude. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ordezkaritzetan lortzen da.

• Trenez mugitu behar baduzue, agian "INTER RAIL TXARTELA"ren berri izatea komeni zaizue. Adina: 26 urte betegabe. Prezioak, iraupenaren eta lurraldearen arabera ezarrita daude. TIVEn.

**Aseguruak**

• Gaisorik jartzeko inolako asmorik ez baduzue ere, badaezpada... aseguratuta joatea komeni zaizue: a) Seguritate Sozialak atzerriko herrialde askotan balioko dizuen txartela egingo dizue, garaiz eskatzen baduzue, noski. b) Seguru pribatua izanez gero, galdetu bertan zer nolako babesa eskaintzen dizuten atzerrian. c) munduko herrialde guztietan balioko dizuen ISIS asegurua da beste aukera bat, ekipaje galera ere babesten duena. TIVEn.

***"... homofobia, sexismoa eta matxismoa armadaren oinarrian daude, eta horren aurrean marika bazterturik sentitzen da, eta beste balore batzuk sortzen ditu."***

**XABIER SANCHEZ, EHGAMKO KIDEA, EGUNKARIAN**

**Informazio gehiago:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**Tfnoa: 77 00 65**

## · ESAERA ·

*"Parranda gustatzen zait, behintzat hurrengo egunean lagunei ez badiet lotsaz begiratu behar"*

WALTON

## · SOLUZIOAK ·

**Horizontalak:** 1.Ca. 3. Iooia. 8. Agiridun. 10. (Ald.) Nedilo. 11. Cremona. 13. Epiok. 14. Nu. 16. Lea. 17. Iris. 19. On. 20. Pauso.

**Bertikalak:** 1. Cancelo. 2. Agerpen. 3. Irimo. 4. Oilokia. 5. (Ald.) Odon. 6. IU. 7. And. 9. Ideia. 12. Anis. 15. Uso. 18. (Ald.) Ru.

## · GURUTZEGRAMA ·




J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Kaltzioa. 3. *Filosofia*ren bokalak. 8. Agiria duena. 10.(Ald.)Euskal abizena. 11. Italiako hiria, bibolingintza gune. 13. (Ald.) Gantz, urin. 14. Alfabeto grekoko hamahirugarren letra. 16. Lekeition itsasoratzen den ibaia. 17. Begiaren mintz biribil koloreduna. 19. Egoki. 20. Urrats.

**Bertikalak** 1. Antonio, MCCko lehendakari berria. 2. Agertzearen ekintza eta ondorioa. 3. Gipuzkoako mendia, Zumarragan. 4. Oiloaren motako hegaztia. 5. (Ald.) Nodulo. 6. Estatu mailako hauteskunde-koalizioa. 7. Andorrako ibilgailuetan. 9. Pentsamendu. 12. Alkoholdun edari gozoa. 15. Hegazti mezularia. 18. (Ald.) 100ºCtan irakiten du.

## · HOROSKOPOA ·

**Aries** Aurten ere San Antoniok kasu gutxi egingo dizu.

**Taurus** Jaiak datoz eta zure poltsikoa huts-hutsik.

**Gemini** Gaiso kolorea duzu. Eguzkia hartzea komeni zaizu.

**Cancer** Dotore zaude jantzi berriekin eta orrazkera txoro horrekin.

**Leo** Erlojuaren menpe bizi zara eta hori ez da ona.

**Virgo** "El semaforo" telebista saioan parte hartzea gomendatuko nizuke.

**Libra** Anima zaitez, mundua ez da hain beltza.

**Scorpio** Hamaika trikimailu bururatzen zaizkizu bazkaria ez prestatzeko.

**Sagitarius** Lagunei bost axola zure bikotearekin dituzun batailak.

**Capricorn** Ez dakit zergatik baina udaberrian jasangaitza bihurtzen zara.

**Aquarius** Guztiaren berri izan nahi duzu eta hori ezinezkoa da.

**Piscis** Zure lankidea ez da hain zintzoa. Kontuz!


# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- **Minbiziaren diagnostiko goiztiarra**
- **Ekografia**
- **Mamografiak**
- **Bularreko patologiaren unitatea**
- **Menopausia**
- **Haurdunaldiaren kontrola**
- **Zitologiak**
- **Etab.**

*Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:** **CRISTOBAL**
**ESTOMBA**
**GOMEZ**
**MURGIONDO**
**OTALORA**
**RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**




lurrindegia perfumeria
ZARRAOA

- Bidaiatzeko eta jazteko poltsak
- Bisuteria
- Opariak
- Edertasun kabinetea
- Solariuma

***Kosmetika**
Lancaster
Guerlain
Elizabeth Arden
*Promozio eta opari handiekin

*Kanpatorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE*



cerámicas
URIBARRI

**Zeramika erakusketa eta salmenta**

**Uribarri Etorbidea, 22-B**
**Tfnoa: 79 81 80 • Faxa: 79 81 80**
**ARRASATE**






***SEGURTASUNAREN* ARTEA**

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan:** ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

**ARTEAREN *TEKNOLOGIA***

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

***BERRIKUNTZAREN* ARTEA**

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28.
Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

**Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.**
**OPEL VECTRA BERRIA.**
**ARTEA *MUGIMENDUAN.***

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.